

Kultura

Victor Arrizabalaga artista mañariarrak Gasteizko Sancho el Sabio fundazioan erakusketa inauguratu du > 11




Plateruena babesteko kanpaina martxan da

Durango Plateruena 'Zilarberritzen' gogoeta prozesua garatu du aurten, eta hurrengo urteetarako kultur proiektua sortu du herriko eragile eta norbanakoen laguntzagaz. Orain alde ekonomikoari heldu gura diote arduradunek. 250.000 euroko zorra kitatzeko helburuagaz, ekarpen eta borondatezko lan kanpaina abiarazi dute. > 3



Eskola zaharraren erabilera publikoa aldarrikatu dute Arrazolan > 6

Anbotope elkarte eta Atxondoko Udala hainbat aldiz ibili dira auzitegietan eskola zaharraren eraikina dela-eta. Urtarrilean auzitegiek udalari eman zioten arrazoia, eta Anbotoperi lokala uzteko agindua eman zioten. Orain lau urte amaitu zen Anbotope elkartearen alokairu kontratua. Arrazolako auzokideek azaldu dute eskola zaharra erabilera publikora bideratzea gura dutela.



Durango > 2

Kalamua edukitzeagatik joan zen eguenean egindako atxiloketek eztabaida piztu dute Durangon

Durangaldea > 4

Frackingaren kontrako 4.166 sinadura jaso dituzte

Elorrio > 7

Transportes Nanukeko lan gatazka epaitegietan dago berriro

Zornotza > 8

Barloworld enpresan zazpi langile kaleratu gura dituzte

Herririk herri

Atxiloketen eraginez, marihuanaren gaineko eztabaida kalean dago

Lagun bi atxilotu dituzte kalamua edukitzeagatik

DURANGO M. Onaindia
Joan zen eguenean, lagun bi atxilotu zituen Ertzaintzak Durangoko Kalebarrian, etxe bitan marihuana eduki, eta osasun publikoaren kontrako delitua egiteagatik. 370 landare, 400 kimu eta 250 gramo topatu zituzten. Auzokide batzuek sute bat zegoela uste zuten, eta horregatik joan ziren ertzainak. Ez zegoen suerik: kea etxean egiten zebiltzan lan batzuek sortu zuten. Etxe horiek Anboto marihuana kontsumo taldeak



“Autokontsumorako eskubidea dugula uste dugu”

IÑIGO KARRETO

erabiltzen ditu. Atxilotuetako bat Iñigo Karreto izan zen, ostalaritza arloagatik ezaguna, eta, bere izena agertu denez, gaia kalean zabaldu da.

Anboto taldeko presidentea da Karreto, eta, legeztatuta egoteaz gainera, jarduera publikoa dutela dio. Amaierara arte joko dute epaiketetan: “Autokontsumo



Kalebarriko etxe bitan topatu zuen Ertzaintzak Anboto elkarteko marihuana.

morako eskubidea dugula uste dugu, eta epai guztiek babesten gaituzte”. Autokontsumoa legala dela adierazi du, eta landaketa eta kontsumo partekatuan sortzen ei dira nahasmenak.

Durangon lau elkarte daude 120 bazkide inguru dauzka Anboto taldeak, eta arau deontologikoa edo etikoa guztiek dau-

kate onartuta. Epai judizialei jarraituz, kopuru zehatz bat partekatzen dute –hiru gramo eguneko–, eta beste inori ez banatzeko konpromisoa dute hartuta. Gainera, ez da Durangoko talde bakarra; lau daude, eta, Karretoren ustez, ehunka kontsumitzaile daude. Beraz, autokontsumoa normala dela dio. Baina normalizazioa lortze-

ko, erregulazio baten beharra ikusten du, “atxiloketek egoera zailtzen dutelako”. “Ez dugu zertan horrelako egoerarik jasan”.

Eusko Legebiltzarrean mar txan dago lanketa bat, eta, antza denez, ia aditu guztiek egin dute erregulazioaren alde. Baina, ez dago erabakirik hartuta, eta kontsumitzaileek egoera zalan-tzati horretan jarraitzen dute.

Jaietan alkoholagaz kontuz ibiltzeko deia

Alkoholikoentzat sasoi arrikutsua izan ahal da

DURANGO M.O.
Elorrioko eta Izurtzako jaiak amaitu ostean, Goienkalekoak, Iurretakoak eta Durangokoak datoz segidan. Alkoholagaz arazoa daukatenentzat sasoi arrikutsua izan ahal da, eta, horregatik, jaietan alkoholagaz kontuz ibiltzeko deia egin dute Al-Anon elkartekoek. Alkoholiko senideak batzen dituen elkarte da Al-Anon, eta gaixorik dauden horietaz kezkatuta egin dute deialdia.

Jai giroan edana ugaritzen denez, menpekotasunean erortzeko arriskua handitzen da. Alkohola edateko ohituran berriro ez jausteko, euren antzeko egoeran daudenei gomendioa eman diete Al-Anonekoek: gai-

xorik daudenei laguntzea eta adi egotea.

Batzarrak, eguenetan Al-Anon elkarte mundu mailakoa da, eta Durangon iaz hasi

Edana ugaritzen denez, menpekotasunean erortzeko arriskua handitzen da

zen martxan. Eguenetan dira batzarrak, 18:00etan, Landako lokaletan. Euren helburuak kideen artean elkarri laguntzea eta indartzea dira, gero, senide gaixoari laguntzeko.

Goienkaleko jaiak hasiko dira gaur iluntzean

Txaranga eta buruhandiak ibiliko dira gaur

DURANGO M.O.
Iluntzeko 20:00etan jaurtiko duten txupinazoagaz hasiko dira gaur Goienkaleko jaiak. Batez ere asteburuan egongo dira ekitaldiak, baina datorren eguaztenterako ere prestatu dute egitaraua. Izan ere, hilaren 24ko Mesedeetako Amaren egunaren bueltan ospatzen dira Goienkaleko jaiak. Edozelan ere, kaleak eta ostalaritzak hartuko dute protagonismoa Dendak Bai elkarteko tabernek eta udalak antolatutako egitarauan.

Gaur, txupinazoaren ostean, Sugarri txaranga eta buruhandiak ibiliko dira kalean gora eta behera. 23:30ean, DJ bategaz jarraituko du jai giroak. Bihar, 12:30ean musika eta buruhan-

diak etorriko dira berriro. 13:30ean, sardina-jana egingo dute, jaietako ekintza arrakastatsuenetakoa. Arratsaldean mus eta igel txapelketen txanda izango da, eta iluntzetik aurrera musika egongo da. Domekan, 12:00etan ekingo diote giroa alaitzeari. 13:00etarako Tabira Musika Bandaren kontzertua iragarri dute, eta arratsaldean umeentzako ekintzak eta txokolatada prestatuko dituzte.

Eguaztenean amaituko dira jaiak, Ama Birjinaren egunean. 12:00etan, pintxo banaketa egingo dute tabernetan, eta, 14:00etan, bazkaltzeko elkartuko dira. 19:00etan, meza egongo da Santa Anan, eta, ostean, musikagaz agurtuko dituzte jaiak.

Udaleko arreta zerbitzua udaletxera udaletxera lekualdatu dute

DURANGO M.O.
Herritarren Arretarako Zerbitzua Andra Maritik udaletxera aldatu dute. Udal ordezkariak esan dute “herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko eta baliabideak optimizatzeke” helburuz egin dutela aldaketa.

Goizeko ordutegiagaz hasi dira, eta astelehenetik aurrera arratsalde ere bai. Barrenkalean dagoen sarreratik joan beharko dute herritarrek. Gainera, administrazio elektronikoa martxan ipiniko dute, eta, horrela, zerbitzua eraginkortzeko esperantza agertu dute.

PSE-EEK ekainean adierazi zuen aurrezte dela lekuz aldatzearen arrazoa. Izan ere, 3.600 euroko alokairua dauka Andra Mariko lokal horrek.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2014ko irailaren 19a, 12. urtea - 558. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes, Lehior Elorriaga.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Plateruena babesteko deia egin dute, proiektuak urte askoan iraun dezan

Plateruenerako kultur proiektua ziurtatu ostean, 250.000 euroko zorra kitatu gura dute aurten

DURANGO Markel Onaindia Plateruena Kafe Antzokiak *Zilarberritzen* gogoeta prozesua garatu du aurten, kultur proiektu herritarra eraberritzeko. Izan ere, arduradunen nahia beti izan da egitasmoa herriko beharretara egokitzea. Duela urte bi EHU-ko ikerlari batzuekin hasitako bidea aurten argitu da, herritarren partaidetza sustatu duen

kudeatuko dena". Kudeaketarako talde zabalak ipini dira mar txan dagoeneko, eta udalagaz batera ere aritu dira hausnartzeko, baldintza hobeen bila. Baina beste erronka bat dator orain: zorra kitatzea, ekonomikoki bideragarri izateko. Horretarako, herritarrei diru ekarpenak egiteko deia luzatu diete, *...eta urte askotarako!* kanpaina aurkeztuta. Atzo, hainbat herritarrek babestu zuten kanpaina berria.

Gaztelu-Urrutia: "2014a amaitu orduko, zorra kitatzeko nahikoa kuota eduki gura dugu"

gogoeta prozesuan. Plateruena indartuta irten da prozesutik, eta hurrengo urteetarako kultur proiektua ziurtatuta dagoela azaldu du Beñat Gaztelu-Urrutia zuzendariak. "Gune multidiziplinarra izango da, euskara eta kulturaren espazio partekatua, eta sortzaileekin eta elkarrekin

Zorraren aurrean, baikor Duela hamar urte jaio zen Plateruena. Obrarako milioi eta erdi euroko inbertsioa egin zuten, eta oraindik 250.000 euroko zorra dauka banketxeekin. Eguneroko ostalaritza egitasmoa bideragarria dela dio Gaztelu-Urrutiak, baina zorra kitatzeko ez dela nahikoa. Ondorioz, Euskal Herrian hain errotua dagoen auzolanera eta boluntariora jo dute. Zorra bost urteko epean kentzeko helburua dute, eta diruz lagunduko duten herritarrek topatu nahi dituzte. Baikorra da Gaztelu-Urrutia: "2014a amaitu



Plateruenerako ekarpen kanpaina babestu duten herritarrek, atzo, aurkezpenean.

orduko, zorra kitatzeko nahikoa kuota eduki gura dugu".

Herritarrei bost urterako kuota bi ipini dizkiete aukeran: 60 euro urteko edo 120 euro urteko. Laguntzaileak Plateruena kooperatibako bazkide izango dira hasieratik. Diruaz aparte, auzolanagaz ere egin ahal dute ekarpena, urteko bost egunetan boluntario izateko prest egonik.

Fase berri bat dago martxan Plateruenean. Urriaren 31n hamargarren urtemuga dute zain, eta Durangoko Azokan jaialdi berezia ospatuko dute. Herritarren laguntzagaz, argi dute proiektuari luzerako bultzada emango diotela.

... ETA URTE ASKOTARAKO!

• KUOTAK

• **60 euro** urteko, bost urtean. Hobarria: bi menu txartel eta ikuskizunetarako bi sarrera. Bazkide hasieratik.

• **120 euro** urteko, bost urtean. Hobarria: lau menu txartel eta lau ikuskizunetarako sarrera. Bazkide hasieratik.

• **5 boluntariora** egun urteko. Hobarria: bi menu txartel eta ikuskizunetarako bi sarrera.

• ZELAN BETE

www.plateruena.net webgunean

Kupoia bete, eta antzokian entregatu Kanean eta etxeetan banatuko dute

Plateruenerako arreta bulegoan

Irailaren 22tik aurrera: aste bitartean, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Zapatuetan, 12:00-14:00.

Stop Accidentes elkarteak jaso du aurtengo Mugikortasunaren saria

Herritarren segurtasuna eta elkarbizitza bultzatu izana nabarmendu dute

DURANGO M.O. Mugikortasun Jasangarriaren Astea ospatzen dabilta Durangon, eta, horren harira, Mugikortasunaren saria eman zion martitzenean udalak Stop Accidentes elkarteari. "Aspalditik lan itzela egin du", adierazi

zuen Aitziber Irigoras alkateak, eta herritarren segurtasuna eta elkarbizitza bultzatu izana nabarmendu zituen.

Elkarteak Araba, Bizkai eta Gipuzkoan duen ordezkariak, Rosa Trinidadek, saria jaso izana eskertu zuen: "Poztasun han-

dia da pertsonalki zein elkarte lez". Laguntza ematen dutenak ere izan zituen gogoan: "Herrian era altruistan laguntzeko prest dagoen jende zoragarria dago". Lanean jarraitzeko eta gizartearen sentsibilizazioa pizteko deia egin zuen.



Irigoras eta Trinidad, udaletxean.

2013ko irabazlea

ALBERDI

HARATEGIA

DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel.: 946 817 658

Bertako okela • Aurretiaz prestatutako janariak

San Fausto jaietara batzeko deia, Cristobal Aguiloren kartelagaz

Aurtengoak izango dira Natxo Martinezek antolatuko dituen azkeneko jaiak



Antolatzaileak eta txupineroak, martitzenean, udaletxe aurrean.

DURANGO Markel Onaindia Hiru aste besterik ez dira falta San Fausto jaiak hasteko. Urriaren 11tik 19ra bitartean garatuko dira Tabira Musika Bandaren txupinazoagaz hasiko diren jaiak. Makina bat ekintza egongo da, eta kartelak jaira batzeko deia egiten du. Cristobal Aguiló murtziarraren *Súmame a la fiesta* izan da kartel lehiaketako irabazlea. Epaimahaiaren eta herritarren botoen baturak

hori ekarri du. Baina Internet bidez bozkatuena *Busti kolorez San Faustuek!* izan da. Martitzenean egin zuten udalaren egitarauaren aurkezpena, eta Natxo Martinezek azken urtea izango da antolakuntzan, jaien ardura eta zinegotzi kargua utziko ditu eta. Gainera, elkarte batzuen ekarpena faltan botatzen dutela esan zuen.

Txupinazoa botatzea "ohore handia" dela adierazi zuen Josu

Otxotorena Tabira Musika Bandako presidentea. Txupinazoa txikia Mugarra Triatloi Taldekoek jaurtiko dute, eta eurak ere "pozik eta gogoz" daudela azaldu zuen *Txela* Bereziartuak.

Ohiko ekintzez gain, igeriketa txapelketa herrikoa, kantu-jira eta zaldi-salto lasterketa daude nobedadeen artean. Aurtun, musika eskolako patioan ere ekintzak antolatuko dira, eta zezen plaza bueltatuko da.

DURANGO I.E.

Santa Ana plazan egin du Durangaldeko Fracking Ez plataformak agerraldia. Espero zutena baino lau aldiz sinadura gehigo (guztira, 4.166) bildu dituztela jakinarazi du. Durango, Zornotza, Mañari, Izurtza, Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai eta Zaldibarko herritarren sostengua lortu dute frackingaren kontra. Orain, iritzia eta hitza arlo politikora eramango dutela esan dute Fracking Ez plataformako kideek.

Gasteizko legebiltzarrean herri ekimen legegilea proposatzeko behar diren sinadurak baino hiru aldiz sinadura gehiago lortu ditu Fracking Ez plataformak EAeko hiru lurraldeetan; guztira, 103.589. Irailaren 13an aurkeztu zituzten legebiltzarrean.

Frackingaren kontrako sostengu handia lortu dute

Eskualdeko 4.166 sinadurak babestu dute frackinga debekatzea eskatzeko herri ekimen legegilea



Durangoko Santa Ana plazan egin zuten agerraldia, eguaztenean.

Aparkatzeko TAO zerbitzua mugikorretik ordaindu ahal da

Zerbitzuan alta hartu behar dute erabiltzaileek

DURANGO M.O.

Aste honetatik aurrera, aparkatzeko TAO zerbitzuan abantaila bat daukate herritarrek. Telefono mugikorretik edo tabletatik ordaintzeko aukera dago, eta denbora luzatzeko eta dirua bueltatzeko aukera ere bai.

Lehenengo, zerbitzuan alta hartu beharko dute erabiltzaileek, www.teletaodurango.mobi/gestion webgunean; datu pertsonalak eta kontu korrante zenbakia sartu beharko dituzte. Autoa TAO eremu batean uztean, mugikorretik ordaindu ahal dute, eta bankutik kobratuko diete arduradunek. Gero ere, denbora amaitzen ari zaiela ikusiz gero, ez dute makinara joan beharrik edukiko. Berdin, denbora uste baino laburragoa egin, eta aldea kobra-

tu gura badute. TAO zerbitzuko zaintzaileak ekintzaren abisua jasoko du bere gailuan.

Gertek enpresa da TAO zerbitzuaren esleipena daukana, eta nobedade hau euren arretkontuaren barruan garatu dute; hau da, udalari ez dio gainkosturik eragingo. Durango Bizkaiko hirugarren udalerria da sistema hori ezartzen, Bilboren eta Getxoren atzetik. Horregatik, "oso pozik" daudela esan du Irigorasek.

Gertek enpresako arduradun Pedro Aizarnak azaldu du tresna berria abantaila dela, baita kanpotik datozenentzako ere. Bilbon ipini zuten lehenengoz: "Batzarretan-eta, jendea gehiago arduratzen zen TAO zerbitzuko epemuga amaitzearizateaz, batzarraz baino".

Jabekuntza Eskolako ikastaroen eskaintza

Emakumeentzako bederatzi ikastaro eskainiko dituzte

ABADIÑO Itsaso Esteban

Bederatzi ikastaro eta tailer eskainiko ditu Abadiñoeko Jabekuntza Eskolak 2014-2015 ikasturtean. Askotarikoa da emakumeentzako eskola horretako eskaintza; dantza edo antzerki tailerretatik hasi, eta lana bilatzeko nahiz estresa gutxitzeko tekniken inguruko ikastaroetaraino. Jabekuntza eskola "prestakuntza eta topaketa feministarako bilgune izatea" da bultzatzaileen helburua.

Aurreko urteetan bezala, gai bakoitzean aditua den emakume batek gidatuko du ikastaro edo tailer bakoitza. Iaz, 91 emakumek hartu zuten parte Abadiñoeko Udalak eskaintzen dituen ikastarootan.

Abadiñoeko Udaleko Berrintasun Arloko arduradunek azaldu dutenez, ikastaroak hasi baino astebebe lehenagora arte egin ahal dute matrikula. Errota eta Txanporta kultur etxetan zein berdintasuna@abadiño.org e-mailean eman daiteke izena. Matrikularen prezioa 15 eurokoa izango da abadiñoarentzat, 30 eurokoa beste herri batzuetakoentzat, eta 5 eurokoa ikasleentzat eta langabeentzat.

Jabekuntza Eskola "prestakuntza eta topaketa feministarako bilgune" izatea gura dute

hitz

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT

PALINDROMO ARIKETAK
Markos Gimeno Vesga (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT

TXIKITZEN ZARETENEAN
Uxue Alberdi & Aitziber Akerreta (2013)

MUSIKA

ORBAINAK
Beñat Igerabide (2014)

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HIRU FISIOTERAPIA ZENTRUAREKIN BATERA

Nerea Sarriguarte
Dietetika eta nutrizioa

Antso Estegiz zumardia, 4 - 48200, DURANGO
nesarriugarte@gmail.com **666 850 469**



ERROTARIXUENA DURANGO

Errotarixuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdegunek eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvias.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41 
www.sukia.com 

sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Eskola zaharraren erabilera publikoa aldarrikatu dute Arrazolan

Abuztuko jaietan, arrazolar asko Anbotope elkarteak erabiltzen duen eraikinaren parean batu ziren, bere erabilera publikoa eskatzeko

ATXONDO Joseba Derteano Badira urte hatzuk Atxondoko Udala eta Anbotope elkarteak auzitegietan dabiltzana, eskola

zaharreko eraikina erabiltzeko eskubidea dela-eta. Aurtengo urtarrilean Bizkaiko Probintzia Auzitegiak udalari arrazoia

ematen zion ebazpena argitaratu zuen, eta lokala libre uzteko eskatu zion Anbotope elkarte-kideei. Alokairu kontratua



Arrazolarak sasoi bateko eskolaren eraikinaren aurrean.

amaitu zen arren, eskola zaharreko eraikina erabiltzen jarraitzen dute oraindik Anbotope elkarte-kideek.

Horregatik, hainbat arrazolarrek euren iritzia publiko egitea eta lau haizetara zabaltzea erabaki dute. Joan zen abuztuan ospatu zituzten Andra Mari jaietan, ezbaian dagoen eraikinaren aurrean batu ziren, argazki bateratua atera zuten, eta eraikin horren erabilera publikoa aldarrikatu zuten. “Jaietako lehen agerraldi hori datozen hilabeteetan garatuko den kanpaina baten abiapuntua izan da”, Igor Olaetxearen esanetan. Hain zuzen ere, datorren irailaren 29an, San Migel egunez ohitura duten moduan, beherago dagoen Er-laupen bazkari baten bueltan

Datozen hilabeteetan egingo duten aldarrikapen kanpainaren abiapuntua izan zen abuztukoa

elkartuko dira, eta, orduan, gaia mahai gainean ipini, eta eztabaidatzeko asmoa dute, aurrera begirako urratsak definitzeko.

Eskola zaharreko eraikina hutsik geratzen bada, bertan zer

Eraikinean herriko taberna bat eta turismoa sustatzeko aterpetxe bat egin daitezkeela uste dute

komeni den egitea ere azaldu dute: herriko taberna, jubila-tuentzako txoko bat eta denda txiki bat, bertako baseritarren produktuak saltzeko. Eraikinak solairu bi dituzenez, bigarren solairuan turismoa sustatzeko aterpetxe bat egitea ondo ikusten dute, oheak eta dutxak egokituta. Ideia horiek ia erabat datoz bat udalak bere sasoian adierazi zituenekin.

Eurekin harremanetan jarri arren, Anbotopeko elkarteak ez dute gaiaren inguruko euren ikuspuntua eman gura izan.

Ikasleen hezkuntzan parte hartu gura duten boluntarioen bila

Ikas Komunitateak proiektuaren barruan, matematika saioak dinamizatzen dituzten boluntario bila dabil eskola

OTXANDIO J.D.

Otxandioko eskola Ikas Komunitateak izeneko irakaskuntza metodologia egituratzen eta gauzatzen ari da apurka. Metodologia horren muina da herritarrek parte-hartze aktiboa izatea gaztetxoaren heziketan. Horretarako bide bat boluntarioekin talde elkarreragileak sortzea da. Urriaren 1etik aurrera talde horietan matematikak lantzeko saioak hasiko dituzte, eta eskola horiek dinamizatzen dituzten boluntario bila ari dira (otxandiokoeskola@gmail.com).

Saioak Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratuta daude, eta martitzen (09:00-11:00), eguazten (14:45-16:00), eguen (09:00-11:00)

eta 14:30-16:00) eta barikuen (09:00-10:30) artean banatuko dituzte. Boluntarioak ikasleekin talde txikietan batuko dira, eta irakasleek prestatutako ariketak dinamizatuko dituzte hamabost minutuko saioetan; ondoren, talde txikiak txandatan joango dira, ariketa guztiak amaitu arte. “Taldea txikiak direnez, gaztetxoaren parte-hartze zuzena ziurtatzen dugu. Ez da esperimendu bat, ikastetxe eskotan probatu dute, eta badakidu eraginkorra dela”, dio Iñigo Ramos eskolako zuzendariak.

Ikasleekin hasi aurretik, boluntarioek formakuntza labur bat jasoko dute irakasleen partetik.



Eskolako ikasle ohiek ikasleekin opor aurretik egindako saio batean.

Ikasleei garraiorako laguntzak eskainiko dizkie udalak

MAÑARIA M. Onaindia

Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo unibertsitatean ikasten dabilzan mañariarrek udalaren laguntza edukiko dute. Hain zuzen ere, ikastetxe horietara joateko hartu beharreko garraioa finantzatzeko lagunduko die. 2013-2014 ikasturteari dagokio laguntza, eta hilaren 26a baino lehen aurkeztu behar dute eskaera.

Laguntza jasotzeko, nortasun agiria, matrikula orria eta garraio gastuen ziurtagiria eroatea eskatu dute. Gainera, laguntza beste administrazio publiko batean eskatu badute, horren fotokopia bat ere aurkeztu beharko dute.

Oñatira irteera

Bestalde, bihar Oñatira irteera egingo dute Ursula Donea nagusien elkarteak eta udalak antolatuta. Unibertsitatea, Arrikruzeko kobak eta Arantzazuko santutegia bisitatuko dituzte, besteak beste.

Datozen hilabeteetan egingo duten aldarrikapen kanpainaren abiapuntua izan zen

Mazorriaga eta Jaio onenak kozinatzen

Jaietan bakailao eta tortilla txapelketak irabazi dituzte

IZURTZA J.D.

Aurtengo Izurtzako jaiak eman dute berea. Beste behin ere, bakailao eta tortilla txapelketak izan dira jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa, eta partaidetza zabala izan dute.

Tortilla txapelketak 40 parte-hartzaile izan ditu aurtengoan, eta Joseba Jaio izurtzarrak irabazi du lehen saria. Tortillarik onena zein zen erabakitzeko epaimahaian egon zen Karmelo Irastorzen esanetan, “zapora aldetik onena izan da, mami-

tsu egon da, eta osagaiak bere neurrian bateratuta izan ditu; itxura aldetik ere onena dela uste dugu”. Bigarren saria Rebeca Barandikak jaso du; hirugarrena Javier Retegik, eta laugarrena Iusenska Murgoitioiok.

Bakailao txapelketan hiru emakumek bete dituzte txapelketako aurreneko hiru postuak. Lehen saria Begoña Mazorriagarentzat izan da aurtengoan; bigarrena Mertxe Ariznabarretak jaso du eta hirugarrena Lidia Azkaratek.

IV. Mendi Duatloian izena eman daiteke

Irailaren 27an jokatu dute proba, Mallabian

MALLABIA Jone Guenetxea

IV. Mallabiko Mendi Duatloian antolatzaileek jakinarazi dutenez, proba honetan parte hartzeko izen ematea martxan dago. Bi bide daude horretarako. Batetik, www.mendiduatloia.com webgunearen bidez, irailaren 26ra arte (15 euro), edo, bestela, duatloian egunean bertan, irailaren 27an, 15:00ak baino lehenago (20 euro).

Adin guztietako kirolariek izango dute parte hartzeko au-

kerak. Umeen probak zabalduko du egitaraua, arratsaldeko 15:15ean, eta adinaren arabera talde bi egingo dituzte. Lasterketa laburra, berriz, 15:45ean hasiko da. Korrika 2 km egingo dituzte (80 m+), bizikletaz 8 km (350 m+) eta korrika 2 km (80 m+).

Lasterketa nagusia 16:00etan abiatuko da. Parte-hartzaileek 6,3 km egingo dituzte korrika (200 m+), 16,5 bizikletaz (700 m+) eta 3,4 km korrika (100 m+).

Transportes Nanukeko lan gatazka epaitegietan dago berriro ere

Akordioa lortu arren, Nanuken gauza batzuk ez dira konpondu; epaitegietan prozesu bi daude, lan egutegiaren eta grebako tentsio une baten ingurukoak

ELORRIO Markel Onaindia
Iazko udazkenean zalaparta handia sortu zuen Transportes Nanukeko gatazkak. Hil bi pasa iraun zuen grebaren ostean, akordioa lortu zuten enpresako zuzendaritzak eta beharginek. Baina badirudi arazo batzuk ez direla konpondu. Prozesu judicial bi daude martxan, lan egutegiaren eta grebako tentsio une baten ingurukoak. Azken kasu horretako epaiketa egin zuten atzo, Elorrioren, eta tentsioa piztuzen udaletxe atarian.

Beharginen ordezkariak adierazi dute hitzarmena sinatzerakoan 1.724 orduko lan egutegia adostu zutela, baina, handik gutxira, enpresak orduak igo, eta gaur egun 1.900 ordutik gora sartzen dituztela. Eskubide urraketa dela diote: "Larria da langile horiekiko eraso". Zuzendaritzakoek "inposaketaren gestioa" jarraitzen dutela kritikatu dute. Gerenteak, ostera, beti saiatu direla egutegia hobetzen esan du, eta beharginek bazekitela zein zen egutegia.

Bestalde, greba sasoian izandako tentsio egoera batean gerenteak, ustez, "irainak eta erasoak" jaso zituen, eta, horregatik, hiru langileren kontrako epaiketa egin zuten atzo. LABek eta ELAk deituta, protesta egin zuten, langileen arabera, akordioan geroko errepresaliarik ez egotea adostu zutelako. Hainbat bider artxibatu ostean, salaketa-gaz aurrera egin izana kritikatu dute sindikatuek. Gerentearen esanetan, langile horiek irainak zuzentzea bakarrik gura dute.



Atzo, epaiketa egin aurretik hartutako irudia, udaletxe parean.

Sare jaio da, preso eta iheslarien eskubideen alde

Elorrioren joan zen barikuan aurkeztu zuten Sare; "sakabanaketagaz amaitzea" da lehen erronka

ELORRIO M.O.
Euskal Herriko gatazkaren konponbidearen barruan, preso eta iheslarien etxeratzea bultzatu gura du Sarek, kartzeletan edo ihesean dauden giza eskubideak oinarritzat hartuta. Herri-rik herri aurkezpenak egiten dabilta, eta Elorrioren joan zen barikuan ipini zuten hitzordua. Plazan egin zuten ekitaldia, eta herritarrei eskaini zieten protagonismoa: "Izenak dioen beza-

la, sarean oinarrituko da mugimendu berria, eta herritarrak izango gara bertako protagonista". Dispersioa gainditzea dute lehentasun: "Konponbidearen bila goaz, eta sakabanaketagaz amaitzea izango da gure lehen erronka herritarra".

Ekitaldi nazionala deitu dute biharko, 18:00etan, Bilboko Miribillan, eta presoaren sakabanaketagaz amaitzeko ibilbidearen hasiera lez islatu gura dute.



Sarearen irudia islatu zuten barikuan, aurkezpenean.

Doako matrikula eskainiko dute kiroldegiko ikastaroetan

ELORRIO M.O.
Elorrioko kiroldegian badabiltza ikasturterako eskaintza prestatzen. Hainbat ikastaro egongo dira aukeran, eta astelehenera aurrera hasiko da matrikulazio epea. Gainera, urriaren 12a baino lehen izena emanez gero, matrikula doan eskainiko dute. Datorren astean, ateak irekitzeko eguna izango dute, erabiltzaileek ikastaroak doan probatu ahal izateko. Adibidez, astelehen arratsaldean gluteoak, abdominalak eta hankak lantzeko (GAP) saioan eta *stretching* saioan zein pilates hipopresiboan parte hartu ahal dute.

Gainera, prestakuntza fisikorako ikastaroa ere martxan ipiniko dute. Behobia-Donostia, Quebrantahuesos eta Ehunmiliak lasterketeta gogorretarako prestatzeko entrenamendu pertsonalizatuak jasoko dituzte. 946 821 027 telefonoan edo elorrio@bpxport.es e-mailean lortu ahal da ikastaroen inguruko informazioa.

Mari Jakaren omenezko kontzertua egingo dute

GARAI M.O.
Leit Motiv bikoteak kontzertua eskainiko du bihar, Garain, aste honetan bertan hil den Mari Jaka omenezko. Patricia Seral sopranoak eta Eva Pons gitarristak osatzen dute bikotea, eta *Reencuentros* errepertorio hainbat kanta joko dituzte. Narváez, Falla eta Haendel musikagileen piezak entzun ahal dute, esaterako. 11:45ean hasiko da, Elizabarrin.

Mari Jaka garaitarra misiolari izateko prestatu zen. Baina osasun arazoengatik ezin izan zuen ikasitakoa praktikan ipini. Zornotzako Larrean fraileei laguntzen ibili zen, eta Garain ere elizan laguntzeko lanetan murgildu zen.

Narváez, Falla eta Haendel musikagileen piezak entzun ahal dute, esaterako

Trikitilari gazteen txapelketarako izen-ematea

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Azaroaren 30ean Zaldibarren jokatu dute Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXIII. Txapelketako finala. Txapelketa horretan parte hartu gura dutenek izena eman dezaten epea zabaldu dute Zaldibarko Udalak eta Koral elkarteak: irailaren 26a baino lehen eman behar dute parte hartu gura duten trikitilariak izena.

Soinulariek zein panderojoleek 1995. urtea baino geroago jaiotakoak izan behar dute

Zaldibarko finalaren aurretik, Azkoitian eta Aramaion jokatu dute Euskal Herriko trikitilari txapelketako kanporaketak. Parte hartu gura duten trikitilari bikoteetako soinulariek zein panderojoleek 1995. urtea baino geroago jaiotakoak izan beharko dute.



BOE BATERAKO BALDINTZA GUZTIAK BETETZEN DITUZU?

Etxebizitza, garajea eta trastelekua, 139.590 eurotik hasita, Durangon! (BEZa barne eta sukalde jantzia). Zuzenean, zozketarik gabe. Entrega-epea abendurako dago aurreikusita.

Gure etxebizitza pilotua bisita ezazu! 12tik 14ra eta 19tik 21era.

Ostiralean 16:00etatik 20:00etara.
Larunbatean eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

2 eta 3 logelako BOEak ditugu, garaje eta trasteleku elkartuekin. Etxebizitza hauek 64,55 m2 eta 72 m2 arteko azalera dute. Entrega-epea abendurako dago aurreikusita.

Visesa eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pertsonekin konpromisoa



PERTSONA HELBURI
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

Euskaraz ikasteko aukera AEKn, barnetegian eta udal euskaltegian

Matrikulazio kanpaina hasi dute AEKn, barnetegian eta udal euskaltegian, eta aurtengo nobedadeen zein urteroko eskaintza zabalaren berri eman dute



Julio Aranguena, Maribi Zubiaga, Andoni Agirrebeitia eta Idoia Zuloaga prentsaurrekoaren ostean.

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako udal euskaltegiko, AEK-ko eta barnetegiko arduradunek elkarrekin eman dute prentsaurrekoa asteen, 2013-2014 ikasturtera begira norik bere eskaintzaren berri emateko.

Zornotzako AEK-ko arduradun Julio Aranguenak "euskara praktikoa sustatzen" ahalegin berezia egingo dutela adierazi du: "Euskararen transmisiorako beharrezkoa da gu-

rasoen eta seme-alaben arteko hartu-emana euskaraz izatea, baina senar-emazteen eta lagunen artean euskaraz aritzea ere garrantzitsua da".

Zornotzako barnetegiko zuzendari Maribi Zubiagaren esanetan, "euskaraz ikasten dabilzanek ikusi behar dute ikasteko gai direla, eta barnetegiak horretarako aukera itzela eskaintzen du; eguneko 24 orduetan euskaraz dabilza, eta

gai direla sentitzea aurrerapauso bat da ikas prozesuan".

Udal euskaltegiko eskaintzaren barruan *Irakurketa erraza* izeneko ikastaroa dago: "Adin batetik gorakoek berba egiteko ez, baina euskaraz irakurtzeko arazoak izaten dituzte, eta hor ere eragin gura dugu", adierazi du udal euskaltegiko zuzendari Idoia Zuloagak. Bizkaiera ikasi gura dutenentzako ikastaroa ere eskainiko dute, besteak beste.

Eguenean jaiak hasiko dituzte Ogenbarrenan

Txupinazoagaz eta kalejiragaz ekingo diete jaiak

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Ogenbarrena auzoan San Migel jaiak hasiko dituzte datorren egunean. 19:00etako txupinazoaren ostean, trikitilarietako kalejiran joango dira tabernetatik.

Barikuan briska, ping-pong eta igel txapelketak egongo dira. Briska txapelketarako izen-ematea auzoko tabernetan egin daiteke, 15 euroan.

Zapatuan, 12:00etatik aurrera, aurten bosgarren aldia beteko duen babarrun lehiaketa

egingo dute. Parte hartu gura duenak irailaren 25a baino lehen egin behar du izen-ematea Ogenbarrenako tabernetan. Zapatu iluntzetik aurrera musika izango da nagusi; lehenengo, Eromen taldeagaz eta, ondoren, Diversion's taldearen erromeriagaz.

Domekan amaituko dituzte jaiak. 11:00etan txistulariekin kalejiran irtengo dira; eguerdiko 14:30era arte gaztetxoentzako puzgarriak ipiniko dituzte, eta txorizo dastaketa ere egongo da.

Etxeko suteei aurre egiten lagunduko diete nagusiei

Prebentzioa lantzeko jarraibideak emango dizkiete

IURRETA Amaia Ugalde

Laster, 80 urtetik gorako iurretarek bisita jasoko dute etxean, etxeko suteen inguruko informazioagaz eta ke-detektagailuak ipintzeko eskaintzagaz. Udalak kontratatutako zerbitzua da, eta herritarrentzat doakoa izango da.

Arrisku iturri izan daitezkeen instalazio elektrikoak, berogailuak eta tximiniak aztertuko dute bisitetan. Gainera, segurtasunerako jakin beharreko ideia batzuk azalduko dizkiete

Barloworld enpresan zazpi langile kaleratu gura dituzte

ZORNOTZA J.D.

Zornotzan lantegi bat duen Barloworld Finanzauto enpresak 177 langileren lan kontratu etendura aurreikusten duen espedientea aurkeztu zuen abuztuaren 29an. Horietako zazpi enpresak Zornotzan duen lantegian gauzatuko lirakeke, eta beste hiru Zornotzako lantegiak Logroñon eta Iruñean dituen delegazioetan. Zornotzan, guztira, 58 langilek egiten dute lan. Espainia osoko lantegi guztiak kontuan hartuz gero, Barloworld Finanzauto enpresan ia 1.200 langile daude.

Espediente horren aurrean langileek bost greba egun deitu dituzte: irailaren 22, 25, 26, 29 eta 30. "Espedienteak harridura utzi gaitu. Badakigu ez gaudela ondo, baina 177 langileren etendura espedientea aurkezteko bezain txarto ere ez", azaldu zuen enpresa komiteko Roberto Ruizek (CCOO). "Ez dugu kaleratzerik egon dadin nahi, eta, egon behar badute, gutxienez kaleratze ez traumatikoak izatea eskatzen dugu", adierazi zuen Ruizek.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Gezurra esaten dute murrizketak ezkutatzeke

Uztaileko osoko bilkuran, alkateari eskatu genion bitartekari gisa jardun zezan Osakidetzaren aurrean, abuztuko arratsaldetan osasun zentroko laguntzari eustea lortzeko. Eskaera publikoa egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak murrizketarik egongo zenik ukatu zuen bere hedabide nagusian. Hala ere, ambulatortara sartzeko atean udako ordutegi berriko kartela zegoen jarrita.

Aste batzuk igarota, ambulatortara arduradun zen José Luis Balentziagak itxiera eta guk salatutako murrizketa onartu behar izan zituen.

Horrenbestez, argi utzi zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak ez zuela egia esan. Oso kontu larria!

Are larriagoa, ordea, murrizketa arrazoi ekonomikoak bultzatuta egitea, pisuzko argudiorik eman gabe eta erabiltzaileei buruzko datu objektiborik eskaini gabe. Are gehiago kontuan izanik hilabete luzez hitz egin dela zentroaz, bertako langileak behin eta berriz kexatu baitira langile gutxiegi dagoelako.

Gainera, aintzat hartu behar dugu ambulatorioak 60.000 biztanle inguru hartzen dituela barne, biztanleria oso sakabanatuta dagoela, eta ospitalerik hurbilena 25 kilometrorara dagoela.

Zer pentsatuko ote dute orain osasun zentroko arduradunen hitzak sinetsi zituzten durangarrek, gezurra esan zitezela jakitean? Ziurrena, nik pentsatzen dudana gauza bera: gezurra esaten dute egindako murrizketak ezkutatzeke.

SERRATU, S.L

GALDARAGINTZA
ETA ITXIERAK

gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia
Tel.: 946 201 837 - Faxa: 946 818 635 - serratu@serratu.com

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Mintzodromo bategaz hasiko dute ikasturtea eskualdeko berbalagunek

Urriaren 29an hasiko da Berbalagun egitasmoa

DURANGALDEA A. Ugalde Kafe baten bueltan berba egiteko batu eta, bide batez, euskara praktikatu. Hori izaten da Berbalagun egitasmoaren oinarria. Urriaren erdialdera hasiko dira martxan eskualdeko Berbalagun taldeak, eta parte hartzeko deia egin dute eragileek. Ikasturte hasierarako mintzodromoa antolatuko dute urriaren 29an, hainbat adinetako euskaldun zahar eta berriak batzeko asmoagaz.

Iaz, 200 lagunek hartu zuten parte 28 taldetan. Aurten ere "konplexu barik" parte hartzeko deia egin dute. AEK-ko Ziortza Aldekoa-Otaloraren berbetan, "euskaldun zaharrek ere konplexuak izaten dituzte euskara batua ez dakitela-eta".

Mintzodromoa Plateruenean egingo dute, urriaren 29an, goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 18:00etan. Euskaltegiatiko ikasleak, berbalagunak eta herritar guztiak gonbidatu dituzte mintzodromora.

Durangaldeko AEK, Durangoko udal euskaltegia, Hizkuntza

Euskaltegiatiko ikasleak, berbalagunak eta herritar guztiak gonbidatu dituzte mintzodromora

tza Eskola eta Berbarok antolatuko dute egitasmoa, Amankomunazgoagaz eta udalekin elkarlanean.



Berbalagun egitasmoaren bultzatzaileak, prentsaurrekoan.

Hildako mendizaleak oroituko dituzte Besaiden

Etzi, 09:00etan ipini dute hitzordua, Elorrioko plazan

DURANGALDEA J. Derteano Besaide tontorrean mendi istripuz hil diren euskal mendizale lagunak oroituko dituzte igandeko Oroimen Egunean. 09:00etan Elorrioko plazatik

irtengo dira, eta Memaiatik egingo dute Besaiderako igotzea. Meza egingo dute hildakoen omenez; ondoren, trikitilariak ere egongo dira, eta txosna ingurua alaituko dute.



Napoka Iria, Berrizen, Okangoko San Migel jaietan

Ermitetatik ibilaldia egingo dute hogeigarrenez

BERRIZ A.U.

Datorren asteburuan giro berezia edukiko dute Okango auzoan, San Migel jaietan. Zapatuan, 16:00etan ekingo diete jaiari, Donien Atxa ipinita eta txapliguak botata. Asteburuan, txirrindulari lasterketak, bolo txapelketa, Berrizko baselizetatik ibilaldia, kontzertu bat eta erromeriak izango dituzte: Napoka Iria taldeak joko du zapatuan, 20:30ean, besteak beste.

Domekan, San Migel ermitan elkartuko dira, eta ibilaldia egingo dute Berrizko baselize-

tatik. Martxaren hogeigarren edizioa da. Bi ibilaldi prestatu dituzte, laburra, 14 kilometrokoa, eta luzea, 24 kilometrokoa. Goizeko 07:30ean irtengo dira luzera doazenak, eta 09:00etan laburreko partaideak. Eguerdian meza izango dute auzoko hildakoen omenez, eta, ostean, Iremiñe dantza taldearen saioa eta bertsolariak izango dira.

San Migel egunean meza edukiko dute, 19:00etan, eta, ondoren, omenaldia egingo diote Emilio Bastidari. Gautxori taldeagaz amaituko dute eguna.

> DURANGALDEA ASTEON

Astronomia azokan, Durango

AZOKA Astronomia zientzia jendarteratzeko helburuagaz Guadalajaran (Espainia) antolatuko dute Expoastronomica azokan parte hartu zuten, joan zen asteburuan, Durangoko astronomia gelako kideek; hitzaldietako bat eskaini zuen Esteban Esteban bertako arduradunak. Durangoko Udalak standa ipini zuen azokan.

Elorri txahala zozkatu dute

SARIAK Elorrioko jaien barruan errifan bidez zoztu egin dute txahala Santurtziko udal euskaltegi langileek irabazi dute. 2.235 izan da zerbaki irabazlea.

Bestalde, Elorrioko jaietan idi probak egin dituzte, eta aurtengo txapelketa Gipuzkoako Oliden izan da, 48 untze egin ostean.

Zozketa Elorrioko Gure Esku Dagok

SARIAK Elorrioko Gure Esku Dago dinamika errifak atera eta zerbaki irabazleak zozkatu ditu: lehen saria 2.174 zerbakiarentzat da, eta Edinburgora asteburu-pasa irabazi du. Bigarren saria (Bartzelonarako asteburu-pasa) 1.827 zerbakiarentzat da. Hirugarren saria (Idiazabalen asteburu) 2.490 zerbakiak irabazi du.

Iritzia

Oportxikiak 3

Oraingoan Izurtzako Santa Agedako jaira noatzue. Urtero irailaren bigarren igandean ospatzen da, eta oinez zein kotxez joan daiteke. Mezarekin hasi zan jaiak, eta, ondoren, talde bi jantzen: bertako Mendigain taldekoak eta Arabako Villabuenakoak. Zelako behar ederra egiten dabizen izurtzarrak, bikain! Eta arabarrak adinartekotasuna lantzen, gaztetxo zein zaharrek euren herriko dantzak berreskuratuz. Ondoren, argazkian agertzen diren andrazkoak bertotan: Oihana Bartra, Iratxe Ibarra eta Erika Lagoma. Iaz lez aurten be saio ona egin eben. Entzuleoi labur egin jakun gai-jartzaile barik osoturiko ia ordubeteko saioa. Ondoren, bazkaria gero eta politago dagoen inguruotan.

Kristina Mardaras (lurreta)



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - lurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Eskarne Larrinaga Goiogana | Berdintasun arloko hezitzailea | Ondarroa, 1965

“Guraso askok ez dute mikroindarkeriaren eta mikromatxismoaren kontzientziarik”

Emozioen munduan murgilduko dira Iurretan, Eskarne Larrinagak gidatuko duen ikastaroan



> BERBAZ Jone Guenetxea Berdintasun agentea, genero politiketan aholkularia, sexologia, psikoterapeuta eta jakituria afektiboan aditua da Eskarne Larrinaga ondarroarra. Bere lanaren helburua ongizate pertsonala eta familiarra lortzea da. Familia dinamiken kudeaketaren inguruan ikastaroa emango du Iurretan, emakumeen Anderebide Elkartearen bidez.

Ikastaroa zertan oinarritzen da? Ikastaroan landuko duguna ulertzeko, ni zer testuingurutan ibiltzen naizen ezagutzea garrantzitsua da. Nik lantzen dudana jabe-kuntza da. Jabekuntzan, lidergoa eta harmonizazioa lantzen ditut, eta eneagrama da erabiltzen dudana metodologia. Zutabea da norberak bere burua ezagutzea. Adimen emozionaleko konpetentziak ere lantzen ditut. Jendea

ondo sentitzea da asmoa, eta norberaren indarguneak bultzatzea. Gai hauek maila pertsonal zein familiarrean lantzen ditut. Dena lantzen dut genero ikuspuntutik.

Zelako talde dinamika erabiliko duzu Iurretako ikastaroan? Konpetentzia emozionalak landuko ditugu eneagramaren bidez, eta taldearen arabera landuko ditugu gainerako gaiak, ekaritzen dituzten eskaeren arabera.

Zer profiletako jendea joaten zaizu laguntza eske?

Denetarik dago. Asko ikasteko gogoz etortzen dira, jakinmina dutelako. Beste batzuk, berriz, momentu ahulean dauden pertsonak izaten dira. Zu ondo bazaude, harmonizazioa lantzen jarraitu dezakezu, beti ez gare-lako ondo egoten. Eta momentu berezi batean daudenek babesa izaten dute.

Lidergoa zelan lantzen duzue? Sororitatean lantzen dugu lidergoa: egoera zaili aurre egiteko gaitasuna izatea eta afektuzko espazioak sortzeko gaitasuna izatea bultzatzen da.

Ikasturte hasiera sasoi ona da familia dinamikari buruz hausnartzeko?

Nire ustez, sasoi ona da hausnarketa pertsonal bat egiteko eta zure familiari buruzko hausnarketa egiteko; familia osoarena. Nik harreman sareak lantzen ditut. Eneagramaren bidez konturatzen zara zergatik hartzen dituzun erabaki batzuk, eta zure familiakoak nondik dabilzan. Munduan bizitzeko eta fedea izateko bederatzi modu daude, eta zuk ikusi behar duzu zu non zauden kokatuta. Horrela, zure familiakoek jokatzeko duten moduan zergatik jokatzeko duten ikusi dezakezu. Orekatuta zauden ikusi dezakezu, eta zer egin dezakezun zu zeu orekatzeko eta ingurukoei laguntzeko.

Orekatuta egoteari garrantzi handia ematen diozu.

Orekatuta egotea zeure buruagaz harmonian egotea da, gustura egotea zeure buruagaz. Nik ez dut patologiari buruz berba egiten. Orekatuta zauden, ondo zauden, begiratzen dut. Ahul bazaude, oreka galtzen ari zara. Oreka bat bilatzea da kontua. Norbera ondo egoten ikastea eta besteei ondo egoten laguntzea da asmoa.

Gurasoek zelako tresnak dituzte familia dinamiketan?

Zu ondo egotea eta zure emozioak orekatuta egotea da helburua. Emozio guztiak onartzea garrantzitsua da, umeek mapa emozional guztiak barneratzeko

eta beti emozio batean blokeatuta ez gelditzeko. Teoria mailan badaude beste estrategia batzuk, baina estrategia emozionalak gehiago landu beharko genituzke.

‘Supernany’ eta ‘Hermano mayor’ programek ez dituzte arlo horiek lantzen. Zer iritzi duzu horietaz?

Denbora gutxian aldaketa handiak lortzen dituzte, baina jarraipena duten ala ez ikusi behar da. Nik beste ikuspegi bat dut.

“**Orekatzea zeure buruagaz harmonian egotea da, gustura egotea zeure buruagaz**”

Guraso eta seme-alaben artean harremanak asko aldatu dira?

Genero aldaketa egon da, baina horrek ez du esan nahi guraso guztiak kontzientzia hori dutenik. Guraso askok ez dute mikroindarkeriaren eta mikromatxismoaren gaineko kontzientziarik.

Zertan nabaritu daiteke hori?

Emozio arloan ekintza asko daude. Negarrez hasi, eta negar egiten ez uztea, esaterako. “Nesken modura egiten duzu negar”, esaten da oraindik. Ez da onartzen zu triste zaudela. Indarkeria arloan, adierazteko moduak, tonuak, etiketak, irainak... Desberdintasunak daude oraindik.

Emakume elkarte ugariaren sorreran parte hartu duzu.

Berrizko Gure Izarra elkarte sortzen lagundu nuen. Ikastaroak ematen hasi nintzen, eta taldea sortu genuen. Elorri, Elorri Lore elkartearen jardun nuen. Estatutuak egiten lagundu, helburuak finkatu... Aurten hiru elkareraren sorreran lagundu dut. Bi Bilbon eta bat Galdakaon.

Emakumeen elkarteek zelako egoera bizi dute?

Momentu honetan finantziario arazo handiak dituzte ekintzak egiteko. Gai kulturalak edo berdintasunaren inguruko gaiak landu gura dituzten erabaki behar dute. Hori oso argi izan behar dute. Ni nabilen taldeetan parte-hartzea handia izaten da.

Victor Arrizabalaga | Artista | Mañaria, 1957

“Gure tradizio industrialak asko laguntzen dit tailerreko lanetan”

Gasteizko Sancho el Sabio fundazioaren egoitzan inauguratuko du Arrizabalagak erakusketa, gaur

> ERAKUSKETA Itsaso Esteban Erakusketa hau zure ibilbidean “beste urrats bat” dela adierazi duzu. Urrats inportantea?

Beste urrats bat da, bai. Orain bi urte, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bilboko liburutegian *Beste liburu batzuk* izeneko erakusketa ipini nuen. Liburuaren munduari buruzkoa zen erakusketa hura ere, hau bezala. Kasu honetan, Sancho el Sabio fundazioaren egoitza da erakuslekua.

50 urte bete ditu fundazioak Horrela da, bai, eta urteurreneko ospakizunen artean antolatute nire erakusketa. Erreferentziatzeko lekua da Sancho el Sabio: Euskal Herriko dokumentazio zentrorik handiena da, euskal kulturaren inguruan argitaratzen den guztia katalogatzen dutelako bertan. Gure herriaren memoria gordetzen du. Beraz, ni-

re erakusketaren *Memoriaren lurraldea* izenburuagaz lotura du.

Izan ere, memoriaren inguruko gogoeta bat da erakusketa honen ardatzetako bat.

Bai, batetik, liburuetan dagoen memoriari buruzkoa, eta, bestetik, irudietan dagoen memoriari loturikoa. Esaterako, Gasteizko areto honetarako mural erraldoi bat egin dut, hiru metro altu eta bederatzi luze dena. Ikonoak, gure memoriako parte aktiboak diren irudiak, elkarrizketan ipini ditut lan honetan.

Aldundiko liburutegiko erakusketagaz konparatuta, zer berri-tasun egin duzu?

Gaia berdina da bietan, baina Bilbokoan ia lan guztiak koloredunak ziren –zuri-beltzeko bat izan ezik–. Hamar idazlegaz kolaboratu nuen lan horretara-



Argazkia: Txelu Angoitia

ko. Oraingoan, oster, kolorea baztertzeko pausoa eman dut, eta lan berriak zuri-beltzekoak dira. Aldaketa inportantea da hori niretzat. Urte eta erdiko lanaren emaitza da Gasteizko erakusketa: eskultura beltzak, koloreztatutako eskulturak eta murala, hiru atal horietako lanak bildu ditut oraingoan.

Noiz eman duzu koloretik aldentzeko pausoa?

Bilboko erakusketaren ostean hasi nintzen lanak margotu bari-uzten; zelanbait, zorrotzagoak, garrantzitsuagoak, serioagoak diren piezetan zentratu naiz azkenaldian.

Pozik zaude Gasteizko erakusketaren emaitzagaz?

Ohore bat da Sancho el Sabio fundazioa nigan oroitu izana. Izan ere, erakusketa ipini dugun lekua bera ere oso interesgarria da, oso eraikin berezia da.

Noiz arte eta zer ordutegigaz bisitatu daiteke erakusketa?

Abenduaren 31ra arte egongo da ikusgai. Asteleheneetik barikura, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara egongo da zabalik. Asteburuetan itxita egongo da.

Durango inoiz ikusi ahalko dugu ‘Memoriaren lurraldea’?

Ez dago aurreikusita. Baina etorkizunean aukera balego, gustura erakutsiko nuke nire lana Durangoan. Lagunen eta ezagunen erantzuna ikustea oso polita izaten da sortzailearentzat.

Presentzia berezia du tipografiak zure lanetan. Zergatik?

Literatura gustuko dudalako. Letrekin hitzak eta berbeekin hizkuntzak egiten dira, eta nik, paraleloki, letrak objektu bihurtu, eta eraikinak sortzen ditut. Eskulturak era literarioan sor-

tzen saiatzen naiz: letrekin hizkuntzak ez ezik, eskulturak ere eraiki daitezkeelako. Kasu batzuetan, inspirazio iturri ditut olerkiak, edo idazleei eskatzen diet nire piezak inspirazio hartuta zer bait idazteko. Gasteizen badaude pieza narratiboak, baina baita abstraktuagoak ere, irakurketa askeagoa daukatenak.

Baduzu hain tamaina handiko eskulturak tailerrean egiteko esperientzia?

Egin izan ditut lehen ere, baina tailerreko lana beti da oso gogorra. Edozelan ere, badauket profesionalen laguntza, eta, gustuko gauzak ateratzen zaizkidanean, asko disfrutzen dut.

Altzairua da gehien erabiltzen duzun materiala? Bereziki zaila da material hori lantzea?

Bai, burdina da gehien erabiltzen dudana. Lortu nahi dudaren arabera, brontzea edo bestelako materialak ere erabili izan ditut nire eskulturak egiteko. Izan ere, gauza batzuk burdinagaz egitea ezinezkoa da. Edozelan ere, gure eskualdeko tradizio industrialak asko laguntzen dit tailerreko lanean; materiala lortu eta lantzeko, esaterako.

Zer duzu orain esku artean? 2015ean Bilbon egingo dudana erakusketa eta Iruñeko gotorlekurako egingo dudana instalazio bat prestatzen hasiko naiz, atsedeen labor baten ostean.

Espazioaren inguruan teorizatzen eta materialekin esperimendatzen

Pinturagaz hasi zen Arrizabalaga, eta ondoren ekin zion eskulturagintzari

Unibertsitate garaian hasi zen Victor Arrizabalaga koadroak margotzen. Egun batean, “kasualitatez”, bolumenagaz eta espazioagaz esperimendatzen hasi zen: ideiak hiru dimentsio-tako piezetan islatzen.

Durango bere lantokian, paperean abiatzen ditu Arrizabalagak proiektuak gaur egun ere. Gero, collage edo eskultura forma hartzen dute paperean marrazturiko ideia horiek. Espazioaren inguruan teorizatzen, eta askotariko objektuekin eta materialekin esperimendatzen ematen du bere denbor Victor Arrizabalagak. Sorkuntza, eskulturagintza eta margolana ditu pasio.

Artelanak sortzeko egiten dituen probek, lantzen dituen

prozesuek, eta lan horrek eman dituen emaitza koloretsuek betetzen dute artistaren Durango lantokia: eguneroko objektuen formak imitatuta eta eraldatuta egindako eskulturek, koadro koloretsuek... Baina badago Arrizabalagaren

lanaren islarik kalean ere. Durangoan, Landakon, *Besarkada* izeneko eskultura dago ikusgai, puzzlearen irudian oinarrituta, gizakiok elkarrekiko dugun menpekotasunari buruzkoa.

Buruan duen guztia produzitzeko modua bilatzea da arazoa.



‘Memoriaren lurraldea’ erakusketako irudia. Borja Agudo.

> MUSIKA Itsaso Esteban Zornotzako Udazken txistulari taldeak antolatu du XIV. Txistulari Eguna. Arratsalde izango dira biharko ospakizun egun horretako ekintza gehienak, eta Zornotzako txistulariekin batera, Bermeo, Eibar, Bakio eta Durangoko musikariek ere hartuko dute bertan parte. Zelaieta parkean elkartuko dira txistulariak, 17:30ean.

Lehenengo, talde txikietan, banda bakoitzak herriko eremu batean kalejira egingo du. Txistuaren soinua Zornotzako leku guztietara zabaltzeko asmoz, Ogenbarrena, Ixer, Larrea, Andrandi, Gane eta Zubizabala auzoetan ariko dira jotzen. Gero, berriro elkartuko dira txistulari guztiak, eta, 19:00etatik aurrera, herriguneko kaleetan zehar kalejira egingo dute txistulariek. Tronpetari bi ere ariko dira tartean, herriko hainbat lekutan kontzertu txikiak eskaintzeko.

Gorbeako gurutzea zortzikoa, balsak, jotak, arin-arinak, biribiltak eta abesti herrikoiak eskainiko dituzte, besteak beste,

XIV. Txistulari Eguna ospatzeko elkartuko dira Zornotzan, bihar

Zornotzako Udazken taldekoekin beste lau herritako musikariak ariko dira

eta baita Udazken taldearen *Matxinsalto* ereserkia eta *Aupa gazteak!* Zornotzako ereserkia ere.

Hogeita bost txistulari inguruk hartuko dute biharko ospakizun ekitaldietan parte. Afaritar

batuko dira, azkenik, eguna biribiltzeko, parte hartuko duten musikari guztiak.



Txistulari Egunaren aurreko edizio bateko argazkia.

GEURE DURANGALDEA

Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea



Butan Sorian dago

Badira urte batzuk, uda iristerakoan, bidaia bat prestatzen dudala bizikletan egiteko. Behar dudana guztia eramaten dut ibilbidea egiteko (lo-zakua, sukaldetxo, kanpin-denda, arropa eskegitzeko soka, pintzak, xaboia, janaria...) Pisu larregi agian. Trukean, askatasun handia lortzen dut: asko merkatzen dudalako bidaia, eta nahi dudana tokian lo egin dezakedalako. Bidaia ez da batere merkea, eta modu "alternatiboak" topatu behar ditugu. Nire poltsikoa zuloz beterik egon da aurten, eta Espainiako Estatuan zehar egin dut Gernikatik Alacanterako bidaia, kilometro askotan Cid zaldunaren ibilbideari jarraituta. Irtenurretik mapa eskuan hartuta, ibilbidea hainbat etapatan banatu, eta behar dudana guztia alforjetan sartu dut. Etxeko sukaldian irratia martxan dago, eta Roge Blasco Himalayan dagoen Butaneko herrialdeari buruz berbetan dago bidaiari batekin. Bidaiariaren esanetan, herrialde hori oso ederra eta lasaia da. Zibilizaziotik at egon denez, ia ez dago trafikorik, eta natura bere edertasun osoan agertzen da. Hori bai, bisa 200 euro ordaindu behar da bertan egiten duzun egun bakoitzeko. Hala ere, turismo mota baten muin bihurtu da. Irratia itzali, eta nire bidaiari hasiera eman diot. Arabak, Errioxak, Soriak euren ongietorria luzatu didate, bide bakarti eta trafikorik gabekoetan. Askota jota garia moztera edo batzera doan traktorearen bat. Kostata, baina altura irabazi dut: itsas gainetik 1.000 metro. Mendiek edo gari zelai amaigabeek inguratzen naute. Guadalajarako iparralde zeharkatuz Teruelearrantz noala, Rogerren irratsaioan entzundakoa datorkit burura.

Paradisuak aurkitzen saiatzen gara hemendik oso urrutia, eta ikaragarritzko dirutzak ordainduta, Butan Sorian dagoela jabetu barik.

Bizkaiko emakume dantzarien topaketa

Bizkaiko emakume dantzariak saioa eskainiko dute bihar arratsaldean, Durangoko Ezkurdi plazan



> DANTZA

Durangoko Txoritxu Alai eta Tronperri dantza taldeek antolatu dute Bizkaiko emakume dantzarien bigarren topaketa. Bihar, irailak 20, 18:30ean egingo dute ekitaldi nagusia, Durangoko Ezkurdi plazan (euria egiten badu, Andra Mariko elizpean). Ekitaldian, Durangal-

deko, eta Bilboko eta Sestaoko emakume dantzarien eskutik, dantza emanaldia izango dute ikusleek gozagai.

"Ekintzaren helburua Bizkaian neskek egiten dituzten dantzak ere kontuan hartzea da, eta gizonekin egiten dugun bezala, plazaratzea", adierazi dute antolatzaileek.

Bilboko Agate Deuna abesbatza, Durangon

Bihar, 13:00etan aterako dira kantuan abeslariak

> KANTUA

Astebururo Bilboko zazpi kaleetako tabernetan kantari aritzen den Uribarriko (Bilbo) Agate Deuna abesbatza Durangoko Alde Zaharretik ibiliko da kantuan, bihar. Talde horregaz Bilbon zehar kantuan aritzen den Roberto Palacios Durangoko Orfeoiko kideak gonbidatuta

etorriko dira Bilboko kantuzaleak Durangaldera. Durangoko Alde Zaharrean, tabernarik taberna ariko dira bihar eguerdian, eta taberna bakoitzean pare bat kantu eskainiko dituzte.

100 urteko historia daukan taldea da Uribarriko Agate Deuna abesbatza, eta 50 gizon elkar-tzen dira bertan.



100 urteko historia du Agate Deuna abesbatzak.

Paco Obregón
Adiós, Chéjov
Urriaren 3an - 20:00etan
Urriaren 4an - 20:00etan
San Agustín KULTUR GUINEA
DUBANZORIO LOMALA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

IRAILAK 26 - 22:30ean 6 / 7 euro
MOBY DICK eta LOU TOPEL
MUSIKA KONZERTUA

IRAILAK 27 - 13:00etan Santa Anako elizpetik
KANTULAGUN KALEZ-KALE
Kantu-poteoa Alde Zaharretik zehar
KANTUZALEEN TXOKOA

IRAILAK 27 - 22:00etan 3 euro
MATXAKA FEST
Oier Macho gaztearen omenezko kontzertuak
MUSIKA KONZERTUAK

Eguneko menua astelehenean larunbatera
Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu
deitu!

946 217 902

JAIIAK!

2014ko IRAILA | Iurreta

I
U
R
R
E
T
A

2
8
t
i
k
U
r
r
i
a
r
e
n
5
e
r
a

SAN MIGEL
2014 JAIIAK

*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*



IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA



IURRETAKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 19 BARIKUA

18:00etan Pirritx eta Porrotx: 'Bizipoza' ikuskizuna.

IRAILAK 20 ZAPATUA

ARGAZKI RALLYA ONLINE.
Hartu zure argazki makina, zure mugikorra edo zure tableta, eta bidali iezazkiguzu jaietako argazkirik politenak, dibertigarrienak, interesgarrienak...
GAIA: Iurretako jaiak.

IRAILAK 21 DOMEKA

10:00etan XXXIV. Iurretako Hiri Krosa.

IRAILAK 25 EGUENA

19:00etan 'Guernica 1913' antzezlan, kultur etxean, Banarte antzerki taldeagaz. Gaztelaniaz.

IRAILAK 26 BARIKUA

11:00etan grafiti erakusketa eta tailerra, Amilburu plazan.

17:30ean umeentzako herri kirolak, Amilburu plazan.

18:30ean Maiztegi eskolako umeen dantza erakustaldia, Amilburu plazan.

21:30ean DJa, Askondon.

21:30ean asto probak. Parte-hartzaileak: Igor Otaolea 'Zuetza', Erleaga Herrigoiti, Oñak Gernika eta Landaluze Peruri.

24:00etan DJ sorpresa, herrigunean.

IRAILAK 27 ZAPATUA

08:00etan mendi martxa (Zaldai).

12:00etatik 14:00etara umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak (euria eginez gero, Maiztegi pilotalekuan).

14:00etan herriko nagusien bazkaria. Jarraian, erromeria Uribesalgo soinu-joleagaz.

16:00etatik 19:00etara umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak (euria eginez gero, Maiztegi pilotalekuan).

19:00etan asto probak. Parte-hartzaileak: Partileku Zelai-hipika eskola, Bitorio Zelaia (Eibar), Satxibar Etxebarri eta Txibille Azkoiti.

1. 340 euro eta Moinebe eta Iriarte burdin lanak emandako manta.
2. 310 euro eta Fontaneria Urriagok emandako trofeoa.
3. 280 euro eta Zutoia ile apaindegiak emandako trofeoa.
4. 255 euro eta Arroiabe arandegiak emandako trofeoa.
5. 240 euro eta Amatzza Abasolo Txabarri errehabilitazio zentroak emandako trofeoa.
6. 220 euro.
7. 200 euro.
8. 200 euro.

20:00etan umeentzako erromeria Jose Mendizabalen eskutik, Askondon.

20:30ean tortilla txapelketa, herrigunean (partaide bakoitzak behar dituen osagaiak eta tresneria ekarri behar ditu).

22:00etan helduentzako erromeria, Askondon.

22:30ean rock kontzertuak: Baraia Band, Fiachras eta Exaixu.

IRAILAK 28 DOMEKA SAN MIGEL BEZPERA

09:00etan XXVII. Ahari lurreta Zikloturisten Martxa. Irteera eta helmuga San Migel plazan.

12:00etan Montoitik txapliguak; ondoren, kalejira dultzaineroek alaiturik.

12:15ean Patxin eta Potxin umeentzako ikuskizuna, Amilburu (euria eginez gero, Goiuria kulturgunean).

14:30ean gazte bazkaria, plazan.

18:00etan ohiturazko Donien Atxa jasotzea. Dantzarien azken entsegua.

20:30ean bideo emanaldia, Ibarretxen: 'Emakumeen Bira'.

22:00etan erromeria Zesuma taldeagaz.

IRAILAK 29 ASTELEHENA SAN MIGEL EGUNA

10:30ean dantzarien eta agintarien kalejira Montoitik Plazara.

11:00etan meza nagusia. Ondoren, dantzari dantza eta gorulari dantza.

12:30ean igel txapelketa.

16:30ean herri kirolak. Gorka Lazkano, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Txaber Altube herri kirolak komentatzen.

17:30ean haurren dantzaldia, plazan: 'Zeren zain'.

19:00etan dantzari dantza eta neskek egindako sokadantza.

20:30ean erromeria Oxkixola taldeagaz.

URRIAK 1 EGUAZTENA PERTSONA NAGUSIEN NAZIOARTEKO EGUNA

17:00etan briska txapelketa, igel txapelketa eta txokolatada, jubilatuen etxean.

URRIAK 2 EGUENA

9:00etan Iurretako azoka.

10:30ean kaleko margo lehiaketa, Amilburu.

11:30ean ogi eta Eusko Label ziurtagiridun produktuen dastaketa.

19:00etan bingoa; jarraian, musika eta luntxa jubilatuen etxean.

URRIAK 3 BARIKUA BARIKU ALDREBESA

16:30etik 18:30era umeentzako tailerrak, Askondon (euria eginez gero, Goiuria kulturgunean). • Tailerra: aurpegiak margotzeko tailerra eta mural erraldoia • Tailerra: eskumuturrekoak eta abalorioak • Tailerra: oka jokoa eta talde jolasak herrian zehar • Dantza tailerra.

18:30etik 21:00etara helduentzako tailerrak, Askondon (euria eginez gero, Goiuria kulturgunean). • Tailerra: pilates (55 minutu) • Tailerra: Bollywood (ordu bat eta erdi).

19:00etan poteoa Jarauta 69 fanfarriak alaiturik.

22:00etan afaria ikuskizunagaz (jubilatuen etxean).

22:30ean erromeria Drindots taldeagaz.

URRIAK 4 ZAPATUA MOZORRO EGUNA. GAIA: IPUINAK

12:30ean poteoa.

14:30ean herri bazkaria, plazan (euria eginez gero, Olaburu pilotalekuan).

17:00etan XV. Bizikleta Festa. Irteera San Migel plazan, eta helmuga Olaburu pilotalekuan.

18:00etan ipuin kontalaria, plazan.

19:00etan umeentzako ikuskizuna: 'Dantza kasting'.

22:00etan Bertsolariak: Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Igor Elortza. Gai-jartzailea: Asier Ibaibarriaga.

24:00etan erromeria Luhartz taldeagaz.

URRIAK 5 DOMEKA ARROSARIO EGUNA

10:00etatik 15:00etara XVI. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Andaparapen.

10:30ean dantzarien eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

11:00etan meza nagusia. Ondoren, dantzari dantza eta gorulari dantza.

12:30ean herri kirolak, plazan.

12:30ean haragi bola txapelketa.

14:30ean aurkezpena.

Sariak: • Otzara • Bi botila ardo • Boteila bat ardo.

18:30ean dantza saioa. Talde gonbidatua: Duguna Dantza Taldea (Iruñea); Iurretako dantzariak: gorulari dantza eta dantzari dantza. Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:30ean herri afaria Arantza eta Pantxok alaiturik.

22:00etan jaien amaiera ohiturazko bertoak kantatuz. Erromeriak gauerdia arte jarraituko du.

URRIAK 12 IGANDEA URRIJENA

10:00etan Maspeko aparkalekuan elkartu, eta taldeko argazkia atera bertan.

10:30ean, Maspetik hasita, kalejira plazara.

11:00etan meza nagusia. Ondoren, dantzari dantza eta gorulari dantza. Jarraian, omenaldiak. Bukatzeko, andreen eta gizonen sokadantza.

15:00etan bazkaria, Tellituko aparkalekuan.

18:00etan erromeria eta dantza-kantu poteoa Oxabi taldeagaz, karpan eta herrian zehar.



Pablo Berasaluze omenduko dute, pilota eskolari eskainitako laguntza eskertzeko

“Urte askoan eta modu desinteresatuan” eskainitako laguntza eskertuko dio Olaburu pilota kirol elkarteak



Biharkoa lesiotik bueltatu osteko hirugarren partidua izango du. Asegarre.

> PILOTA Joseba Derteano Olaburu pilota kirol elkarteak omenaldia egingo dio Pablo Berasaluzeri bihar, 22:00tan, Iurretako pilotalekuan, pilotari berriztarrak urte askoan pilota eskolari eskaini dion laguntza “desinteresatu” eskertzeko. Pilota ibilbidean hurrekoak dituen Apraiz, Aretxabaleta eta

Bengoetxea VI.a lagunekin goi mailako pilota partidu baten protagonista zuzena izango da, eta pilota elkarteak oroigarri bat ere prestatu dio esker ona adierazteko.

Era “eskuzabalean” eta “ilusioz” pilota eskolari eta pilotariei eskaini dien laguntza ez zaiela oharkabean pasatu esate-

ko modu bat da biharko omenaldia: “Bagenuen gogoia Pablorigo esker ona adierazteko. Pilotari gazteekin askotan entrenatzen du, aholkuak ematen dizkie, eta pilota elkarteak batzordearen gorabeherez ere interesatzen da. Beti dago laguntzeko prest”, adierazi du Valen Calleja Olaburu pilota elkarteak ordezkariak.

Horregaz batera, hamazpi urtean profesionalean egindako bidea ere aintzatetsi gura diote.

Omenaldi ekitaldia “aspalditik buruan” zerabilte dio Callejak, baina orain arte ez zaie abagunerik egokitu: “Iaz ere buruan geneukan, baina, binako finalean lesionatu ondoren, beste baterako uztea erabaki genuen”. 2013ko final horretan orpazurda hautsi zuen. Aurten ere lesioek ez diote lagundu, eta, hiru hilabete geldirik egon ostean (abuztuan, Gasteizen, min hartu zuen ezker oinean), Vianan (Nafarroa) berragertu zen, zapatuan, eta, martitzenean, Bermeon jokatu zuen. Biharkoa hirugarren lehia izango du.

Konfiantzazko lagunak izango ditu ondoan. Andoni Aretxabaleta markinarragaz osatuko du bikotea, eta Oinatz Bengoetxea leitzarra eta Alexis Apraiz gernikarra izango ditu aurkari. Gaur egun aurreko koadroetan aurkitu daitezkeen aurrelari abilenetako biren arteko jokoa ikusteko aukera egongo da Iurretan. Sarrerak 15 euro balioko du eserita ikusteko, eta 10 euro zutunik ikusteko. Gaur, 16:00etatik 19:00etara erosi daitezke pilotalekuan, eta baita Durangoko Txukun tabernan ere. Egunean bertan ere erosi ahalko dira. “Pilotalekua bete, eta giro polita sortzea” dute helburu.

Partidu erakargarri horren aurretik lagunarteko beste bat jokatuko dute: Eneko Calleja iurretarra eta Imanol Legarreta amurriarra Arkaitz Diez iurretarraren eta Gustavo Rey burgostarraren aurka ariko dira. Reyren eta Berasaluzeren arteko hartu-emanak orain urte

Berasaluze II.ak eta Aretxabaletak Bengoetxea VI.a eta Apraiz izango dituzte kontrario

“Bagenuen gogoia Pablorigo esker ona adierazteko, beti dagoelako guri laguntzeko prest”

asko hasi zen, berriztarrak Burgos eta inguruetan partidu dezentek jokatzen zituenean. Reyk 20 urteko eta adin horretatik beherako pilotariak izango ditu beragaz kantxan. Berezitasun horretatik harago, pilotalekura bertaratzen diren zaleei gozazten saiatuko dira lau pilotariak.

Partiduez gainera, oroigarriekin eta beste osagai batzuekin osatutako ekitaldia ere prestatu dute Berasaluzerentzat, baina xehetasunak ondo gorde dituzte eguna eta ordua heldu arte.

Ford
ford.es

FORD KONDIA
Otaola etorb.
EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK
Santa Maña kalea, 19
IURRETA
Tel.: 946 815 135

Motorretan nagusi.
EcoBoost motorra | **FORD FOCUS 12.990€**

Gauargi Taberna

Te bereziak
Gozari berezia

Dantzari, 5 - Jurreta

Parques y Jardines

Abadiano, S.A.

LOREZAINZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK

Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
Faxa: 94 681 90 82
parques@parquesjardines.euskalnet.net

Garage SAN MIGUEL

Garage San Miguel De Iurreta S.L.
Dantzari auzunea, 8 Behea - 48215 Iurreta
Tel.: 946 811 479 - Faxa: 944 668 282
Posta elektronikoa: garagesanmiguel@gmail.com

Heldu da zinta dantzako zinten marapiloak askatzeko ordua

Dantza taldeari keinu egiten dio Iñaki Irazabal 'Kiña'-k sanmigeletarako egin duen kartelak

> **JAIK** Amaia Ugalde Ofizialki irailaren 28an hasiko diren arren, asteburu honetan bertan sanmigeletarako beroketak egiten hasiko dira iurretarrak. Aste honetan egitaraua aurkezteko prentsaurrekoa eman dute Jai Batzordeko ki-deek, elkarteek eta udal ardura-dunek.

Iñaki Irazabal *Kiña*k egin du aurtengo Iurretako jaiak iragar-tzen dituen kartela. Oromiñon ateratako argazki bat da oina-rria. Zinta dantzako korapiloa lehenengo planoan, eta ezpata dantzariak sumatu daitezke ar-kuekin atzean. Irazabalek hain-bat urtetan aurkeztu ditu lanak jaietako kartel lehiaketara. San Joan bezperako jaiaren herritar-reek horrela bozkatuta irabazi du aurtengo lehiaketa.


Oromiñokoaren moduko argazki bereziak jaietan ugari atera daitezkeela-eta, aurtan sanmigeletarako argazki rallya antolatu du udalak. Irailaren 30era arte ipini du epea Iurre-tako jaietako buruzko argazkiak aurkezteko. Urriaren 5ean, jaietako amaieran egiten duten azokan

banatuko dute saria. Parte-har-tzaile bakoitzak argazki bi aur-keztu ditzake *kultur-etxea@iurreta.net* posta elektronikora.

Gaur Pirritx eta Porrotxek 'Bizipoza' ikuskizuna eskainiko dute pilotalekuan

Argazki rallya antolatu du udalak; irailaren 30era arte aurkeztu daitezke argazkiak

Asteburu honetan Bariku honetan, Pirritx eta Porrotxek *Bizipoza* ikuskizuna hasiko da jaietako giroa Iurretan. Urtero betetzen dute herriko pilotalekua pailazoek, eta aurtan 18:00etan edukiko



Iñaki Irazabal kartel egilea eta jaiak antolatzen ibili diren iurretarrak, egitarauaren aurkezpenaren.



dute hitzordua. Zapatuan, afizio-natuen eta profesionalen pilota partiduak izango dituzte, eta Pablo Berasaluzeri omenaldia egingo diote, urte askoan Olaburu pilota elkarteagaz eduki duen hartu-emanagatik. Domekan, berriz, Iurretako Hiri Krosa egingo dute.

Aste bitartean ere egongo da zer ikusi. Anderebide elkarteak

25erako Banarte antzerki taldearen *Guernica 1913* antzezlanaren lotu du: "Langile borrokari buruzko lana da, eta mezuan argi ikusten da gaur egun ere gizartearen euskarri direla emakumeak". 26an, aldiz, luntxa edukiko dute Anderebide elkarteak bazkideek, eta DJ Keferi eka-rriko dute Askondora, herritar guztientzako musika ipintzera.

Iurretako V. Mendi Martxa Irailaren 27an, zapatu goizez, mendi martxa egingo dute, Zal-dai mendi taldeak antolatuta. Aurtan martxak eta mendi tal-deak berak bost urte betetzen dituzte, eta 29 kilometroko ibil-bidea prestatu dute, "denek egi-teko modukoa". Egunean bertan edo *www.kirolprobak.com* web-gunean eman ahalko da izena.

IBAI-ONDO
KAFETEGIA

Goizeko 06:00etatik
aurrera gosariak eta pintxoak

ONDO PASATU JAIETANI

Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA
☎ 946 202 157

Repara Tu Vehículo
Bestelako mekanika posible da

ONDO pasatu San Migel jaietan!
www.reparatuvehiculo.es

PROMOZIOAK

- OLIOA+OLIO FILTROA EROSITA
15 MINUTU DOAN BOXEAN
- AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSITA
FRENO GARBITZAILEA DOAN
- OLIOA+OLIO ETA ERREGAI
FILTROA EROSITA
30 MINUTU DOAN BOXEAN

N-634 errep. Durango - Bilbao 82 km.
UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta Tel/Fax: 946 817 914

KENAI
Dantza taldeak

www.kenaizentrua.com

✉ kenai@kenaizentrua.com
🐦 @kenai_zentroa
📌 Kenai

Dantzari auzunea 6,5 behea
48 215 Iurreta (Bizkaia)
t: 946 570 970 m: 688 877 455

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tallerra
Bidebarrieta, 7 behea • IURRETA • Tel.: 946 811 512
Faxa: 944 668 100 • e-maila: serapiocalvo@euskalnet.net

ARRIBIDE

Ondo pasa sanmigeletan!

Tel.: 946 818 381



Dantzari guztiak ekitaldi guztietan

Iaz hasi ziren neska dantzariak ekitaldi ofizial guztietan parte hartzen; aurten ere horrela izango da

PAREKIDETASUNA A.U. Mutil dantzariak bakarrik parte hartu izan duten ekitaldietan neskek ere parte hartzea erabaki zuen iaz Mikel Deuna dantza taldeak. Agintariek kalejira egitea, Donien Atxaren bila joatea, bere puntan jartzeko ortuariak batzea, altxatzea... Iaz arte dantza taldeko mutilen ardurak ziren

horiek, baina iaz neskek ere hartu zuten parte. Eguneroko dantza saioetan ere neska eta mutil ibili ziren, eta aurten ere horrela izango da. San Migel bezperan ere, azken entsegu egingo dute neskek, praka beltzak eta niki zuria soinean.

Parekidetasunera bidean, Urriena jaian ere neskek parte hartzea erabaki dute.



Iurretako dantzariak, iaz, Donien Atxa errotan.

Ibilbidean jateko hiru leku egongo direla aurreratu dute, eta amaieran dutxak egongo dira.

Jaia herrigunera

Irailaren 27an bertan tortilla txapelketa edukiko dute, gazte asanbladak antolatuta. Aurten txapelketa herrigunean egitea erabaki dute, jai giroa bertara mugitzeko, "eta tabernetatik ere

San Migel egunean herri kirolak kuadrillaka egingo dituzte, bertsolarien komentarioekin

jendea ibiltzeko". Tabernariak eurek jaietarako DJak ekartzeko asmoa dute.

Herri kirolak guztientzat

Azken urteetan ohitura izan da San Migel egunean kofradiaka herri kiroltan lehiatzea. Aurten Jai Batzordeak proba horiek kuadrillaka egitea planteatu du. Gorka Lazkano, Eneko Abasolo

Abarkas eta Txaber Altube bertsolariak kuadrillen jarduna komentatzen ibiliko dira bertsotan.

Bestalde, Eki kirol taldeak bi saio antolatu ditu. Irailaren 26an umeentzako herri kirolak antolatuko dituzte, 17:30ean, eta urriaren 5ean, dantzarien ostean, profesionalen txanda izango da. Saio horretan batez

ere emakumeak egongo direla aurreratu dute.

Trena martxan dago, eta iurretarrak prest. San Migel bezperan Montoitik txapliguak botata hasiko dituzte jaiak ofizialki. 18:00etan Donien Atxa igotzeko batuko dira. Aurretik egindako beroketen ostean, jai giroko egun beteak izango dituzte iurretarek.



**DESGUACES
PILASTRA**

AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA

☎ eta Faxe: 946 218 079

OSAGARRIEN SALMENTA

☎ : 946 201 787

**GRUA
ZERBITZUA**

Fauste Auzoa, 18
(Zugastietara bidean)
48215 IURRETA



Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurreta
www.zarateyexpe.com

EBANISTERIA - AROZTEGIA

ELAI

Arriandi industrialdea, z/g
Tel./Faxe: 94 620 07 69
48215 IURRETA

URALDE
KLINIKA DENTAL

Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 - 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

LAGOI
S.L.
ERAIKUNTZARAKO
MATERIALA

Biltegia:
Arriandi auzoa z/g • Iurreta
Tel.: 94 620 33 22
Faxe: 94 621 58 74

Erakusketa:
Montebideo etor. • Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxe: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

Herrigunetik kanpora zabalduko dute inoizko Hiri Proba herrikoiena

Bihar jokatu den 34. ediziorako, herritarren partaidetza bultzatu dute

> ATLETISMOA M. Onaindia
Ibilbidea aldatuta dator aurtengo Iurretako Hiri Proba. Hori izango da etzi jokatu den 34. edizioko nobedade handiena. Orain arte herrigunetan presatu izan dute zirkuitua, baina oraingoan kanpora zabalduko dute. Maspe kalean hasita, Durangon sartuko da, Aramotz auzo ingurutik Iurretako Arandia partera joateko. Han bidegorria hartu, eta berriro Masperantz bueltatuko dira korrikalariak. Bost kilometroko ibilbidea da, probari grazia berri bat emango diona. Horretaz gainera, inoizko lasterketa herrikoiena izango da. Izan ere, Bidezabal talde antolatzailekoek herritarren partaidetza bultzatu dute.

Astelehenean egin zuten Hiri Probaren aurkezpena Juan Ignacio Hernandezek eta Cristina Petitek, herriko alkate Iñaki Totorikaguenak lagunduta. Petitek azaldu zuen zirkuitua probatu duela, eta polita iruditu zaiola. Gainera, zaleek eta partaideen hurkoek ibilbidean zehar egoteko erraz daukatela nabarmendu zuen. Maspeko helmugaz ere berba egin zuen Petitek: "Ia nabaritzen ez den iguera bat dauka, baina eragin

muskularragatik erabakiorra izan ahal da". Lasterketak fama ona dauka atleta abadiñarren ustez: "Jendea oso gustura etortzen da". Berak urte batean irabazteko zortea eduki zuela gogoratu zuen: "Kaleak ez dira zabalak, eta ileak tente edukitzen dituzu helmugara ailegatzean".

Petite: "Kaleak ez dira zabalak, eta ileak tente edukitzen dituzu helmugara ailegatzean"

Herritarrek, elitekoekin
Goi mailan dabilen atletak etorriko dira Iurretara, baina azken urteetan aurrekontua asko bajatu eta gero -aurten %30-, duela urte batzuetako kopururik ez da ikusiko. Espainia mailan garaipenengatik borrokan dabilen hainbat etorriko dira Iurretara. Emakumeen artean Iris Fuentes eta Paula González izango dira faborito, Bidezabaleko Sonia Bejaranogaz batera. Gainera, Hernandezek esan-

dakoaren arabera, seguruenik Iraia Garciak ere parte hartuko du; zornotzarra Euskadiko txapeladuna da krosean. Gizonen atalean, oster, Ivan Fernández eta Daniel Mateo dira izenik handienak.

Baina aurrekontuak beste eredu baterako jauzia ematera behartu ditu antolatzaileak. Izaera herrikoia hartuko du, eta afizionatuak eliteko kirolariek ingongo dira. Hernandezen iritziz, korrika egitea goraldian dago, eta hori aprobetxatu gura dute. Nahi duenak Bidezabal taldearen webgunean dauka izena emateko aukera, eta iurretarek erdia ordainduko dute. Guztira, 150 atleta baino gehiago egotea aurreikusi dute. Totorikaguenak etapa berria babestu, eta lehen mailako proba izaten jarraitzen duela berretsi zuen.

Gainera, ume eta gazte mailetako probak ere ikusgai egongo dira, 10:40tik aurrera. 11:30ean Txupete izena eman dioten proba hasiko da, 6 urte baino gutxiagoko umeei begirakoa. Iaz 100 ume batu zirela nabarmendu zuen Hernandezek. Azkenik, 12:00etan irtengo dute afizionatu eta elite mailakoek, 34. edizioko txapelaren bila.



Maspe kalean hasi eta amaituko da proba.



Hernández, Petite eta Totorikaguena, asteleheneko prentsaurrekoan.

GOIURIA
JAIETXEA
ERRETEGIA

Ondo pasa
San Migel jaietan!

Goiuria auzoa, 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) • Tel.: 946 810 886 • www.asadorgoiuria.com

Jai zoriontsuak iurretara guztiei!

RECAMBIOS SAGASTA

Mallabierna industrialdea, 6 | 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 817 058 | Faxa.: 946 817 062
info@recambiossagasta.com | www.recambiossagasta.com

Mallabierna

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabierna industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabierna@mallabierna.com

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA
(Orozketaren errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 • Faxa: 946 203 818
emaila: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com

"la Caixa"

Ondo pasa sanmigeletan!

Bixente Kapanaga, 5 - 48215 IURRETA
Tel.: 946 220 010 • Faxa.: 946 215 848

Arropak atzekoz aurrera janzteko proposamena, Bariku Aldrebesean

Urriaren 3an, Bariku Aldrebesea deituriko egunean, kalera arropak atzekoz aurrera edo ez dagokien ordenean jantzita irteteko deia egin dute



Iaz gala benefiko bat hartu zuten mozorrotzeko aitzakiatzat. Iñaki Irazabal 'Kiña'.

Goi mailako bertsolarien saioa izango da gozagai urriaren 4an

Amets Arzallus Euskal Herriko txapelduna da bertsolarietako bat

> BERTSOAK J.D. Urriaren 4an, Mozorro Egunean, goi mailako bertsolariak osatutako bertso saioagaz gozatzeko aukera egongo da Iurretako pilotalekuan. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapelduna den Amets Arzallusegaz batera, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio eta Julio Soto ariko dira bertsoan, 22:00etatik aurrera. Asier Ibaibarriagak jardungo du gai-jartzaile lanetan.

Bertso saioaren ostean, plazan jarraituko du jai giroak

Luhartz erromeria taldeagaz. Iurretako taldearen dantzaldia gauerdian hasiko da.

Aurtengo musika eskaintzaren zatirik handiena erromer

Lujanbio, Colina, Elortza, Iturriaga, Arzallus eta Soto bertsolariak ariko dira bertsoan

riek osatzen dute. Izan ere, aipatutako Luhartzen erromeriaz gainera, beste lau egongo dira sanmigueletan: Zesuma irailaren 25ean, Oxkixola irailaren 29an, Drindots urriaren 3an eta Oxabi urriaren 12an. Urriaren 5ean ere, Arrosario Egunean, ez da dantzarik eta muskarik faltako. 20:30ean iurretarrak Arantzeta eta Pantxok giroturiko herri afarian batuko dira; ondoren, jaietako amaiera emateko ohiturazkoak diren bertsoak kantatuko dituzte, eta erromeriak gauerdira arte iraungo du.

> MOZORROAK J. Derteano Ohiko arropak eta janzteko modua egun bitan alde batera uzteko proposamena egin du Jai Batzordeak. Urriaren 3rako Bariku Aldrebesea antolatu dute, eta hurrengo egunerako Mozorro Eguna.

Aurreko urteetako sanmigueletan hasitako bideari jarraituz, urriaren 3ko Bariku Aldrebesean umore ukitu bat eman gura die jaietako. Aurreko aldietan,

egunean izango diren askotariko ekintzetan modu horretara parte hartzeko deia egin dute. Esaterako, 19:00etan, Jarauta 69 fanfarriak girotutako poteoa egingo dute herrian zehar, eta, 23:00etatik aurrera, dantzarako gonbita luzatuko du Drindots erromeria taldeak. Aurreko aldiek oso harrera ona izan dute, eta horrek aurten ere gai bat pentsatu eta ekimena antolatzea animatu dituela adierazi dute Jai Batzordeko kideek.

Urriaren 4an Mozorro Eguna egingo dute, eta aurtengo gaia 'ipuinak' izango da

Migueltxo Kajoi eta Txomingero izan dira proposatutako gaiak, besteak beste; aurten, berriz, arropa atzekoz aurrera edo orden jostagarrian janzteko eta

Ipuinetako mozorroak Urriaren 4a Mozorro Eguna izango da Iurretako sanmigueletan, eta aurtengo gaia *ipuinak* da. Nork ez du umetan entzundako ipuinetan pertsonaia kutunen bat? Ausardia batu, eta pertsonaia horiek fantasiatara ekartzeko eguna izango da. Gainera, egun horretan, 18:00etan, ipuin kontalari saio bat ere egongo da Iurretako plazan nagusian.



Maialen Lujanbio da urriaren 4ko bertso saioko protagonistetako bat.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

IZARBET **TIEN 21**

Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldako eta komuneko altzariak

Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 946 812 280 Faxa: 946 216 336 izarbek@izarbek.com

lurretako BATZOKIA

ondo pasatu jaietan!

Eguneko menua Enkargatutako afariak Asteburuetako afariak

C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

UNDARRI BIKE

Bidebarrieta, 5 behea 48215 IURRETA Tel.: 946 817 808 www.undarribike.com

Bizikleten salmenta eta konponketa Ski / Snow zola • Ertzen konponketa

ASIMAIR COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA TEKNIKO ZERBITZUA

Arriandiko industriagunea - UA14 - 13. arloa 5.pabiloia. 48215 IURRETA (Bizkaia) Tel.: 946 202 415 / 946 202 064 - Faxa: 946 203 786 - asimair@asimair.com

IK Iurreta kopistegia

INPRENTA DIGITALA

Bidebarrieta, 1 behea (Korreos ondoan) 48215 IURRETA Tel. 94 681 10 70 planos@iurretakopi.com mac@iurretakopi.com

OKINDEGIA ALBERDI

Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

BADUZU MINUTU BAT?

HORI DA BEHAR DUGUNA IURRETAKO RENAULT GAURSAN RENAULT MINUTO ZABALDU DUGULA AZALTZEKO

Konponbide eraginkorrak eta bizkorrak zure ohiko mantentze-lanei: azterketak, pneumatiko aldaketak, olio eta iragazki aldaketak, bateriak, indargetzaileak...

Eta gaur egungo beharizanen neurrira osatutako hiru abantaila:

- AURRETIKO HITZORDURIK GABE ● PREZIO ITXIAK ● LAN BAKOITZEKO ORDUTEBE BAINO GUTXIAGO



ETA OSPATZEKO, APROBETXA EZAZU GURE ESKAINTZA BEREZIA

2X1 MICHELIN PNEUMATIKOETAN*

Zure zain gaude!

RENAULT MINUTO

DRIVE THE CHANGE



*Eskaintza hau Iurretako Renault Gaur San da baliozkoa, 2014ko urriaren 31ra arte. Eskulana eta orekatzea ez daude barne. Kontsulta itzazu kontzesioaren baldintzak. Ez da bateragarria beste eskaintza edo promozio batzuekin

GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursaautoak.com

Renault gomendatzen du **elf**



Iazko Zabu Zibu ekimenaren ekitaldietako batean ateratako argazki bat.

Zabu Zibu: jolas dinamizazioak, Durangaldeko parkeetan, opor ostean

Ekimen honen bidez Amankomunazgoak familiaren arteko euskararen transmisioan eragitea du helburu

> EUSKARA

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuak, iazko emaitzak ikusita, aurten ere Zabu Zibu egitasmoa jarriko du martxan irailaren 17tik aurrera. Zabu Zibu 3-5 urte arteko umeei eta gurasoei dago zuzenduta. Jolastokietako eta parkeetako jolas saioak di-

namizatzea da helburua. Izan ere, azken urteetan haurren eta gazteen artean euskararen ezagutza asko handitu bada ere, gauza jakina da erabilera ez dela proportzio berean handitu.

Datuen arabera, Durangaldeko familien %61,75 gaztelaniaz mintzo da etxean. Arrazoi ugari egon daitezke horretarako:

Familiaren arteko euskararen transmisioa jolasaren bidez landuko da hainbat modutan

guraso euskaldunek sarritan ez dute behar adina baliabide seme-alabekin euskaraz jolas egiteko; haur eta gazte askok ez dute bizitasunik aurkitzen euskaraz lagunartean komunikatzeko garaian; eta euskaraz arietzeko ohitura falta da, adibidez.

Hori guztia kontuan hartuta, Amankomunazgoko Euskara

Zerbitzuak eta berori osatzen duen batzorde teknikoak arazo horiei aurre egiteko programa bat abiatzea erabaki zuen: Zabu Zibu jolas dinamizazioak parkeetan. Egitasmo horri esker, euskararen familia transmisioa jolasaren bidez landuko da hainbat modutan. Izan ere, hizkuntzaren transmisioa ez da soilik gurasoengandik umeengana ematen, ia denok uste dugun bezala; etengabe ari gara hizkuntza transmititzen: gurasoek umeei eta alderantziz, umeek beste ume batzuei eta gurasoek beste guraso batzuei, esaterako. Ekintza ludiko hauen bitartez, euskararen transmisioa indartu nahi du Amankomunazgoak, guraso zein umeei horretarako baliabideak emanda.

“Euskararen transmisioa lantzeko oso interesgarriak dira honelako ekimenak”, azaldu du Oskar Zarrabeitiak, Amankomunazgoko lehendakariak. Zabu Zibu egitasmoak jolasaren bitartez euskararen familia transmisioa lantzea du helburu; hori lantzeko, Urtxintxako dinamizatzaileen eskutik, haurrek zein gurasoek hainbat jolas ikasiko dituzte. Egitasmoa 3 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago, eta, aipatutako helburuan eragiteko, beharrezkoa da familiakoen edo gurasoen parte-hartzea, eurak direlako gazteen erreferentzia.

Egitasmoari buruzko informazio guztia www.durangaldeaeuskaraz.eu webgunean egongo da ikusgai.

Urtxintxako dinamizatzaileekin umeek eta gurasoek hainbat jolas ikasiko dituzte

ZABU ZIBU KRONOGRAMA

• ABADIÑO

ORDUA
17:00-18:00.

EGUNAK

Urriaren 7an eta 14an Traña-Matiena herri eskolako jolastokian.
Irailaren 18an eta 25ean Zelaieta herri eskolako jolastokian.

• ATXONDO

ORDUA
16:00-17:00.

EGUNAK

Urriaren 3an eta 17an Atxondoko eskolan.

• BERRIZ

ORDUA
16:15-17:15.

EGUNAK

Irailaren 23an, 30ean eta urriaren 2an eskolako jolastokian.

• DURANGO

ORDUA
17:00-18:00.

EGUNAK

Irailaren 17an Zabalarra eskolan.
Irailaren 18an Landako eskolan.
Irailaren 22an Nevers ikastetxean.
Irailaren 23an San Jose-Jesuitak ikastetxean.
Irailaren 25ean Kurutziaga ikastolan.

Irailaren 24an

San Antonio-Santa

Rita ikastetxean.

Urriaren 2an eta 9an Ezkurdi

plazan.

Urriaren 10ean Ezkurdi plazan.

Txantxarien Jaia. ORDUA 17:30.

• ELORRIO

ORDUA
16:30-17:30

EGUNAK

Azaroaren 7an Txintxirri ikastolan.
Azaroaren 14an Maria Bitartekon.
Azaroaren 21ean Herri Ikastetxean.
Azaroaren 28an herriko plazan.

• IURRETA

ORDUA
16:30ean.

EGUNAK

Urriaren 24an eta 31n Maiztegi herri eskolako jolaslekuan.

• MAÑARIA

ORDUA
17:30ean.

EGUNAK

Irailaren 19an eta 26an herriko plazan.

• ZALDIBAR

ORDUA
16:15.

EGUNAK

Urriaren 9an, 16an eta 23an eskolako jolastokian.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

15 ikuskizun, horietatik bi estreinaldiak, San Agustingo azken hiruhilekorako

Paco Obregón durangarrak idatzi eta zuzenduriko 'Adiós, Chejöv' estreinatuko dute urrian, San Agustinen



Programazioaren berri emateko, formatu handiko kartelak ipini dituzte antzokiaren sarreran.

> PROGRAMAZIOA I. Esteban San Agustín kulturgunearen 2014ko azken hiruhilekoko programazioa aurkeztu dute Arantza Arrazola kulturguneko arduradunak eta Jon Kepa Garro Astarloa Kulturgintza erakundeko presidentek. Guztira,

hamabost ikuskizun dira irail, urri, azaro eta abendurako proposatuko dituztenak. "Oso zabal da eskaintza, gustu eta interes guztientzako modukoa", azpimarratu du Arrazolak. Ahalik eta jende gehien erakarri gura dute kulturaz gozatzera.

Estreinaldiak dira 2014. urteko San Agustín kulturguneko azken hiruhilekorako ekarriko dituzten emanaldietako bi. Batetik, antzerkiari dagokinez, Durangoko Geroa antzerki taldean hasi zen Paco Obregonek idatzi eta zuzendu duen *Adiós, Chejöv*

izango da urrian ikusgai. Urriaren 3an eta 4an, 20:00etan izango dira obra horren emanaldi biak. Durangoko Azokaren egitarauaren barrukoa izango da bigarren estreinaldia. Abenduaren 8an, San Agustín kulturgunean eskainiko dute Organik dantza

konpainiak eta Kepa Junkerak *Txapeldun* ikuskizun berria lehenengoz. Garaipenaz, bakar-dadeaz, presioaz eta beldurraz dihardu obra horrek.

Azaroan ere izango du hitzordu berezirik antzerkiak, Durangoko San Agustinen. Eneko Sagardoy durangarra protagonista duen *Arkimedesen printzpioa* eskainiko du Maskarada taldeak azaroaren 23an. Katalunian publikoaren harrera beroa eduki duen Josep Maria Miró i Colominak idatziriko testuaren euskarazko bertsioa antzeztuko du Sagardoyk.

Kulturgunean ahalik eta kultur adierazpide ugarienei leku egiteko arduradunen helburuaren erakusle, musikak ere izango du urte amaiera orduko San Agustinen lekurik. Azaroan Cadaquesko Orkestra Ensembleak joko du, eta Travelling Brothers Big Band ariko da abenduan.

Formatu handiko kartelak

Kulturgunearen programazio zabalaren inguruko informazioaren berri emateko, formatu handiko kartelak ipini dituzte antzokiko sarreran, hiruhileko honetako emanaldien ordutegiak jakinarazteko. Arduradunek prentsaurrekoan azaldu dutenez, abuztua aprobetxatu dute, antzokiko komunak lekualdatu, eta irisgarritasun irizpideetara egokitze.

Antzerki mundua ezagutzeko ikastaroa, Banarteren eskutik

Abadiñoko antzerki taldeak zazpigarren aldiz eskainiko du antzerki tailerra



Datorren barikuan 'Guernica 1913' obra eskainiko du Banarte antzerki taldeak, lurretako jaietan.

> ANTZERKIA

Abadiñoko Banarte taldeak antzerki ikastaroa eskainiko duen zazpigarren ikasturtea izango da hau. Antzerki taldearen banarte@gmail.com posta elektronikoa eman dezake izena antzerkian aritu gura duen 15 urtetik gorako edozein pertsonak. Ohi bezala, urrian hasiko dute ikastaroa, eta ekaineko jendaurreko emanaldiekin emango dute amaitutzat.

Guztira 84 orduko ikastaroa izango da, eta Aitziber Bilbao Elorrioko aktoreak gidatuko du. 16 urteagaz Durangoko Geroa taldeagaz hasi zen Bilbao antzerkigintzan, eta Bartzelonan egin zituen clown arloko ikasketak.

84 orduko ikastaroa izango da, eta Aitziber Bilbao Elorrioko aktoreak gidatuko ditu saioak

Parte hartzen dutenak eszenaren mundura hurbiltzeko aukera eskaintzea da ikastaroaren helburua. Horretarako, hainbat jolas eta ariketa egingo dituzte partaideek; besteak beste, ahotza, begirada, eszena mugimen-

dua, kontzentrazioa eta inprobisazioa landuko dituzte.

Urritik abendura arte, interpretazioagaz lehenengo kontaktua egingo dute ikastaroko parte-hartzaileek, eta bigarren hiruhilekoan aukeratuko dute zer antzezlan prestatu eta erakutsiko duten ikasturte amaieran. Interesa daukanak Banarte taldearen www.banarte.net e-maillean topatuko du tailerraren inguruko informazio guztia.

'Guernica 1913', lurretan

2013ko urrian Gernikako Lizeo antzokian estreinatu zuten *Guernica 1913* antzezalana Iurretan eskainiko dute, irailaren 25ean. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan hasiko da emanaldia. Benetako gertakarietan oinarritutako obra da Banartek eskainiko duena: XX. mende hasieran Gernikan jazotako klase borrokari buruzkoa.

Armagintzako Esperanza y Unceta enpresako langile eibartarrek 1913ko udazkenean, Gernikan, egin zuten greba da antzezlanaren ardatza. Lantokia Eibartik Gernikara aldatu dietenean, Busturialdera lanera eta bizitzera doazen Fermín Larra-goicoa eta Justina Garate bikoitea, eta Arrate euren alaba dira antzezlaneko protagonistak.

**Egoitz Aragon** | Mendi korrikalaria | Zornotza, 1986

“Alpeak mendi izugarriak dira, eta erronka hau sekulakoa da”

Alpeetako Tor des Geants mendi lasterketan hamaikagarren postua lortu du Egoitz Aragon gazte zornotzarrak

> MENDIA Markel Onaindia

Ez dago elkarrizketetara ohituta, eta, errespetua ematen dion arren, kazetariaren galderak erantzuteko prest agertu da. Oraindik Alpeetan eginiko esfortzuari buelta ematen dabil. Tor des Geants lasterketa garrantzitsuan 88 orduz ibili da mendian, 330 kilometro egiteko. Espero ez zuena, sailkapenean lortutako postua izan da: hamaikagarren postua. Onekin parez pare, beraz. Duela bost urte hasi zen mendi lasterketan, eta pixkanaka gorantz doa. Aurten, Ehunmiliak proban ere bosgarren amaitu du.

Pozik egongo zara emaitzagaz, ezta?

Bai, oso pozik nago. Gaur hasi naiz barneratzen. Momentuan bertan baino, orain: beharrek eta kuadrillakoak zoriontzen hasi zaizkidanean. Egia esan ez nuen espero hamaikagarren postuan sartzerik. Beharbada, egindako denbora bai, 90 orduetik gertu ibiltzea. Baina postuarena ia gura barik etorri zen. 120. postuan hasi, eta gura barik jendea aurreratzen eta aurreratzen joan nintzen: 60., 30. eta hornitzeko puntu batean hamaikagarren nindoala esan zidaten. Sinistu ere ezin nuen egin. Hor hasi zen lasterketa.

Lehenengo aldia izan al da?

Iaz ere joan nintzen. 106 orduan egin nuen. Beste katalan bategaz elkartu, eta biok batera egin genuen. Ez zen oso ondo irten, eta, amaitzean, aurten berriro joatea erabaki nuen, denbora hobetzeko. Alpeak mendi izugarriak dira, eta erronka hau sekulakoa da.

Zelan joan zen lasterketa?

Astiro-astiro hasi nintzen. Lehenengo 24 orduak oso txarto pasa nituen: sekulako beroa egiten zuen, eta deshidratatuta nengoen. Gogo barik nengoen, eta erretiratzea pentsatu nuen. Gero, ondo hidratatu nintzen, eta orduak aurrera joan ziren. Ordu bi egin nituen lo aterpe batean. Hor indarrak hartu, eta jendea aurreratzen hasi nintzen. Motibatu egin nintzen. Hamaikagarren postuan egon nintzen, profesionalekin lehian. Hor hasi



“**120. postuan hasi, eta gura barik jendea aurreratzen eta aurreratzen joan nintzen**”

zen nire lasterketa, baina baita nire kalbarioa ere. Presioa zen: “Hamargarren noa, horrela amaitu gura dut, asko falta da, ez dakit aguantatuko dudana...” Burugogorra naiz, eta azkenean hamaikagarren postua lortu nuen.

Zer sentitzen da helmugan, hainbeste ibili ostean?

Mina. Gauza onik ez, egia esan. Iaz asko disfrutatu nuen, baina aurten sentsazio txarra eduki dut. Lo ere txarto eroan dut; lau ordu eta erdi egin ditut lo [lasterketa osoan], haluzinazioak izan ditut... Oso gogorra egin zait.

Beraz, zer da betegarriagoa, sailkapena edo esperientzia?

Esperientzia. Ni ez noa sailkapen on baten bila. Beste urte batean, 88 ordugaz 40. sartu naiten. Horrek ez du ardura handirik, nire ustez behintzat.

Ez daukazu babeslerik, ezta laguntzarik ere. Horrek meritu handiagoa ematen dizu?

Meritu handiagoa? Ez zaude baldintza berdinetan, baina ez dut uste. Babesle bategaz ez nuen askoz hobeto egingo. Meritua lehenak eta azkenak berdindin daukate. Beharbada azkeneak gehiago, denbora gehiago egon delako mendian sufritzen.

Baina aurrean zihozazenek ba- zeukaten laguntza...

Bai. Adibidez, hornitzaileak ordu erdi lehenago laguntzailerari deitzen zioten, eta jatekoa prestatzeko esaten zioten, baita arropa prestatzeko ere. Eta, heltzean, dena prest zeukaten, 1 Formulako boxetan lez. Batek benda ipini, besteak masajea, hirugarrenak janaria ekarri... Ni, ordea, bakarrik egoten naiz.

“**Alde psikologikoa fisikoa baino garrantzitsuagoa da, agian, %80ko garrantzia du**”

Fisikoki bai, baina psikologikoki prestatzen al zara?

Alde psikologikoa fisikoa baino garrantzitsuagoa dela uste dut, agian, %80ko garrantzia du. Baina ez dut prestakuntza berezirik egiten. Nik uste dut izaera kontua dela. Bakarrik joaten naiz beti mendira, eta asko disfrutatzen dut.

Famatua ez izateak anekdota bat ekarri zizun.

Emilie Lecomte eta biok bazkaltzen geunden, eta aterpeko jende guztia beregana zetorren autografoak eskatzera. Ni beragaz nengoen, baina bakarrik. Eta batek esan zuen: “Hori ere hor dago!”. Orduan niregana etorri ziren.

Lehen, haluzinazioak eduki zenuela aipatu duzu. Benetan?

Bai. Lau egunetan lau ordu eta erdi lo eginda, gauza asko ikusten duzu. Dortoka handi bat ikusi nuen, igel piloa alde batek bestera, zuhaitzak niregana zetozen... Amets egitearen parekoa da. Horrelako momentuetan ordu erdi edo ordubete egin behar duzu lo. Momentu kritikoak izaten dira.

Noiztik zabilta mendian?

Mendian betidanik ibili izan naiz aitagaz. Ehizan, perretxikotan... 2009an Hiru Haundiak probaren berri izan nuen, eta hori prestatzen hasi nintzen. Belauna apurru, eta sei hilabete geldu egon ostean, berriro ekin nion. Lehenengo lasterketa laburrak, kilometro bertikalak... Gero konturatu nintzen luzeak gustatzen zaizkidala gehien.

Erronka zehatzik laster?

Ez. Ez zait probak errepikatzea gustatzen, eta leku berriak begiratzen hasi naiz.

Emakumeen UCI mailako talde bat sortuko du Iurretako ziklismo elkarteak

2015ean hasiko dute ibilbidea; Eneritz Iturriaga izango da zuzendaria



Besteak beste, Emakumeen Biran parte hartzeko asmoa du BZK ProBasic taldeak. Maialen Zuazubiskar.

> BIZIKLETA Joseba Derteano 2015eko urtarriletik aurrera emakumeen UCI mailako talde bat sortuko du Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak. BZK ProBasic izango du izena, eta Euskal Herriko elite mailako hirugarren taldea izango da, gaur egun badabil-tzan Bizkaia-Durango eta Loin-tek taldeekin batera.

Momentuz sei txirrindulari batu dira taldera: Olatz Agorria eubarra, Ziortza Isasi elorriarra, Aiala Amesti mallabitarra, Eider Unanue eta Naia Dominguez tolosarrak eta Mar Bonnín mallorcarra. Bonninek 24 urte ditu, eta gainerakoek 23 urtetik behera dituzte. Batzuek BZK ProBasic taldean egingo dute debuta, elite mailan. Hain zuzen, salbuespenak egon dai-

tezkeen arren, 23 urtez azpiko talde lez finkatzea dute helburu. Beste txirrindulari batzuekin ere negoziatzen dabil taldea.

Eneritz Iturriaga txirrindulari ohi abadiñarra izango da taldeko zuzendaria, eta Humberto Gómez ordezkaria. Taldea sortu ahal izateko sostengu ekonomiko nahikoa badute, baina

kosta egin zitzaiola onartu du Iturriagak: "Baina orain inplikazioa erabatekoa da, eta buru-belarri gabiltza lanean".

Trebakuntza helburu

BZK ProBasic taldearen helburu nagusia hauxe izango da: txirrindularientzat gazte mailatik eliteko talde indartsuetara gaur egun dagoen koska handia gainditzeko erdibidea izatea. Hau da, nazioartera joango dira, eta lasterketa garrantzitsuetan parte hartuko dute, Emakumeen Biran, esaterako, baina, batez ere, koska bat beheragoko lasterketetan arituko dira: "Ni hasi nintzenetik hona harrobiko lanak beherantz egin du, oro har: bizikleta gaineko teknika ez da hain ona, sufritzea kosta egiten zaie... Hori izango da gure lana, euren trebakuntzan eragitea apurka-apurka hobetzen joan daitezten".



"Inplikazioa erabatekoa da; buru-belarri lanean"

ENERITZ ITURRIAGA

beste babesle batzuk lortzeko ahaleginetan dabiltzala dio Iturriagak: "Ahalik babesletza zabalena lortzen saiatu gura dugu. Banku birekin negoziatioak azken txanpan daude. Ea zer erabakitzen duten". Proiektuaren gidaritza hartzea hasieran

"Esperientzia pilotatzeko aukera honi ezin nion ezetzik esan"

Gazte mailatik eliterako saltoa egingo du

Olatz Agorriak 18 urte egingo ditu abenduan, eta elite mailako lehen denboraldia BZK ProBasic taldean egingo du.

Zelan sortu zitzazun BZK Pro Basicen sartzeko aukera?

Orain Beste Alde taldean nabil, baina aurretik CAF Engineering taldean aritua naiz, beraz, ezagutzen ditut taldearen nondik norakoak. Eneritzegaz berba egin ostean, oso aukera ona zela iritzi nion, eta baietz esan nien.

Zer sentzazio dituzu?

Ilusioz nago. Normalean taldeak ez dira kanpora irteten, eta lehen urtekoa baldin bazara, gutxiago. Esan digutenez, taldeak lasterketa batzuk kanpoan lehiatuko ditu; esperientzia pilotatzeko aukera honi ezin nion ezetzik esan. Gainera, taldekide izango ditudan ia guztiak ezagutzen ditut. Gehienok lehen urtekoak gara, eta giro ona izango dugula uste dut.

Euskal Herrian emakumeen eliteko talde gutxi daude.



Olatz Agorria
Zornotza, 17 urte

Horregatik da hain albiste ona taldea sortu izana. Ate gehiago zabaltzen dizkigu.

Eneritz Iturriaga izango du-zue zuzendari.

Guk biziko duguna berak urte askoan bizi izan du, esperientzia zabala du, eta hori oso ondo etorriko zaigu.

Fradesek eta Corujok Munduko Txapelketan parte hartuko dute

> TRIATLOIA

Mugarra Triatloi Taldeko Gurutze Fradesek eta Roberto Corujok Distantzia Luzeko Munduko Triatloi Txapelketan parte hartuko dute domekan, Txinan. Korrikalari biak Espainiako selekzioagaz ariko dira.

Gasteizko bere lehen Munduko Txapelketan bederatzigarren sailkatu zen Frades, eta Frantzia jokatu zen iazkoan zazpigarren. Oraingo honetan ere postu horien bueltan ibiltzea du helburu. Ibilbidea ez da bere dohainetarako aproposa. Normalean, igerian ibiltzen da pattalen, eta bizikletan zein korrika ondoen. Distantzia luzean korrikako ibilbideak 30 kilometroko luzera izan ohi du, baina Txinakoak hogeik kilometro izango ditu.

Abadiñok eta Zalduak derbiagaz hasiko dute denboraldia

> FUTBOLA

Asteburu honetan Bizkaiko hiru futbol mailatan dabiltzan Durangaldeko sei taldek denboraldiari ekingo diote. Maila Gorenean, Zaldibarko Zalduak eta Abadiñok derbia jokatuko dute zapatuan, 17:30ean, Solobarrian. Talde bi horiek dira maila horretako eskualdeko ordezkari bakarrak.

Iurretako eta Elorrio Oho-rezko Mailan dabilta. Biek etxetik kanpora jokatuko dute lehen partidua, domekan. Iurretakok Retuertori egingo dio bisita, eta Elorriok Soduperi. Azken denboraldi bietan gertu izan duen igoera lortzeko borrokan egotea da Iurretakoren aurtengo helburua.

Azkenik, Lehenengo Erregionalean Ezkurdik Fruizen eta Berrizek Bilbon (Peñaren aurka) hasiko dute denboraldia.

Azkarra eta Lizundia aurrera, Cafés Baqué txapelketan

> PILOTA

Cafés Baqué Pilota Txapelketako partidua irabazi dituzte Gontzal Azkarraga elorriarrak eta Estefen Lizundia zornotzarrek kadete mailan. Azkarragak Paul Sagasta erkidearen aurka jokatu zuen, eta 18-14 irabazi zion. Elorriarrak txapel-

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Hasi da lana

Bai. Hasi dira entrenamendu guztiak, eta denboraldi-aurrea pil-pilean dago talde gehienetan. Egia esan, denok hasi gara gogo eta indar handiz. Munduko Txapelketa gozatu dugu, eta finlandiarren talde giroak (txalotzekoa benetan) eta AEBetako selekzioaren saskibaloia "galaktikoak" (beste guztiak Lurrean gelditu direlako) gure saskibaloian aritzeko beharri-zana beteezin bihurtu dute.

Horrela, Mikel Garitaonandiaren Zornotza ST buru-belarri ari da denboraldi berria prestatzen. Bigarren denboraldia izango du zilarrezko LEB mailan, eta talde benetan indartsua prestatu dute, aurreko urtekoaren oinarria hartuta. Horrela, Leioatik datorren Joseba Estalayo base gaztea, 23 urteko Tre Browman amerikar hegalekoa, Ander Garcia hegaleko gipuzkoarra eta Juan Coronado Venezuelako pibota, eta joan den urteko Ibon Carreto, David Quero, Iker Salazar, Arturo Cruz, Borja Mendia eta Unai Calbarro izango dira taldean. Aurrera mutilak!

Tabirakon nesken talde berak jarraitzen du, jokalaria gazte berriek gora eginda. Aurreko urtean izandako esperientziak talde indartu eta batuko du, aurtun asmoa berdinarekin aritzeko, hau da, konpetizioan buru-belarri aritu eta goiko postuetan Bigarren Mailako LFra igotzeko fasea jokatzeke aukera izateko.

Eta Tabirakoren mutilen taldean aldaketa nagusi bat dago, entrenatzaile berria, etxeko entrenatzailea: Iskander de Dios Irigoien. Lan ona eta go-go ez dira faltako.

Gozatu Saskibaloia! Gora gure saskibaloia!

ketan irabazten duen bigarren partidua da. Estefen Lizundiak ere gogor lan egin behar izan zuen Iriondo orozkoarra menderatzeko: 18-15. Gainerako partidu bietan Atutxa laukiztarrak eta Martitegi sestaoarrak irabaztea lortu zuten, eta aurrera jarraitzen dute txapelketan.

Momentuz, Cafés Baqué txapelketa hasi zuten Durangaldeko zortzi pilotarietatik hiru geratu dira kanpoan: Mikel Goiria zornotzarra, Paul Sagasta elorriarra eta Edu de Zabala durangarra.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIA



**8TN
HONDEAMAKINA**

gomazko beldarrak

ALKIMAX

**ADAR-
BIRRINTZAILEA**

8 zentimetroraino



ALKIMAX

**ENBORRAK
ZATITZEKO MAKINA**

Elektrikoa
Monofasikoa



ALKIMAX

Eitua industriagunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 946 824 550 • alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Sasoi bateko bost ziklistagaz mahai ingurua bihar, Zornotzan

Julian Agirrezabalek, Oscar Elgezabalek, Felipe Alberdik, Fausto Izak eta Anton Barrutiak beren txirrindularitza ibilbidea errepatatuko dute Zelaieta zentroan

>TXIRRINDULARITZA

Sasoi bateko txirrindularitzaren ezaugarriak eta txirrindularien garaipenak gogoratuko dituen mahai ingurua izango da bihar, 12:30ean, Zornotzako Zelaieta zentroan. 80 urtetik gora dituzten Zornotza eta inguruetak bost txirrindulari batuko dira bertan: Julian Agirrezabal, Oscar Elgezabal, Felipe Alberdi, Fausto Iza eta Anton Barrutia. Urgozo txirrindulari taldea da ekitaldiaren antolatzailea.

Bost txirrindulari ohiek 40, 50 eta 60ko hamarkaden artean garatu zuten euren ibilbidea. Pedro Mari Goikoetxea kazetaria

gidari dutela, euren gaztetako garaipenik esanguratsuenak gogoratuko dituzte, baina orduko txirrindularitzaren gaineko berezitasunak eta anekdotak ezagutarazten ere saiatuko dira. Izan ere, orduko txirrindularitzak ez zuen gaur egungoagaz zerikusirik. Adibide moduan anekdota hau: sasoi hartan, Andaluziako Itzulia lehiatu gura zutenean, euskal txirrindulari asko bizikletan joaten ziren hemendik hara, gero, bizikleta beragaz itzulian parte hartzeko. Ondoren, sariren bat irabaziz gero, trenean itzultzen ziren, eta, irabazi ezik, berriro bizikletan.

Horixe zen Oscar Elgezabalen, Barrutia anaien (Anton eta Kosme) eta beste hainbaten egunero-ko ogia garai hartan, eta tankera horretako abenturak protagonisten euren ahotik entzuteko aukera eskainiko dute bihar.

Horretaz gainera, Urgozok han eta hemen batutako sasoi bateko argazkiekin osatutako bideo bat ere eskainiko dute. Mahai inguruaren ostean, lagunarteko bazkarian batuko dira Jauregibarria jatetxean. Ekime-nak harrera ona baldin badu, baliteke hurrengo urteetan ere jarraipena ematea beste protagonista batzuekin.



JULIAN AGIRREZABAL
lurreta, 88 urte

Bere ibilbide profesionala 1945. eta 1954. urteen artean garatu zuen, eta, guztira, 25 garaipen lortu zituen. Horien artean, 1952an lortutako Espainiako Ziklo-kros

Txapelketa nabarmendu daiteke. Azpimarratzekoa da bere ibilbideko azken lasterketa, Arratera Igoera, irabazi egin zuela. Ez zen sasoirik onenean joan, baina mendian gora abilezia handia zuen, eta Jesus Loroño eta beste hainbat izar menderatu zituen.

OSCAR ELGEZABAL
Muxika, 86 urte

40ko eta 50eko hamarkadetan aritu zen profesional mailan. Gaztetan, gurasoen ezkutuan hasi zen bizikletan. 17 urte zituela, aita hil zitzaion, eta etxeko lanen kargu egin behar

izan zuen. Orduan, amak ezer jakin barik, 04:00etan esnatzen zen bizikletan entrenatzeko, eta, ondoren, ikastera joan aurretik, behiak jezten zituen. Lasterketak irabazten hasi zenean jakin zuen amak zertan zebilen, auzotarren partetik zorionak jasotzen hasi zenean.



FELIPE ALBERDI (KATIA)
Zornotza, 84 urte

1952-1961 artean izan zen profesional, eta hemezortzi garaipen lortu zituen errepidean zein ziklo-krosean. Baina markarik onena ez zuen lasterketa ofizial batean

lortu. Donostian soldadutza egiten zebilela, lasterketa bat lehiatzera joan zen. Agintariak bere bila hasi ziren telefonoz. Jakinarazi ziotenean, bizikletako eskulekuari behe-behetik heldu, eta arrapaladan itzuli zen: "Sekula ez naiz hain arin ibili!".

FAUSTO IZA
Lemoa, 83 urte

1956. eta 1961. urteen artean jardun zuen profesional, hainbat taldetan. Lemoarra da, baina Igorren bizi izan da urterik gehienetan. Hiru bider lehiatu zuen Espainiako Itzulia,

eta horietako batean, 1958an, Gasteizen hasi eta Bilbon amaitu zen 169 kilometroko etapa irabazi zuen. Urte hartan Bicicleta Eibarresa itzuliko etapa batean ere gailendu zen. 1960an beste etapa bi irabazi zituen: Andaluziako Itzulia eta Montañas zirkuituan.



ANTON BARRUTIA
lurreta, 81 urte

1953. eta 1966. urteen artean 52 garaipen lortu zituen. Bost txirrindulari ohien artean berea da palmaresik oparoena. Besteak beste, Espainiako Itzulia bost etapa

eta Espainiako Ziklo-kros Txapelketa bat irabazi zituen. 1960an meritu handiko laugarren postua lortu zuen Munduko Ziklo-kros Txapelketan; aldapa bat jaisten zebilela erori, berriro bizikleta gainera igo, eta azkenengo postutik laugarrenera igaro zen.

Mugarra Triatloi Eskolak hasi du aurtengo bidea

6-18 urte arteko 60 gaztetxo dituzte oraingoz; aurtengo zazpigarren denboraldia izango du

> TRIATLOIA

Mugarra Triatloi Taldeak orain zazpi urte sortutako triatloi eskolak 60 gaztetxoagaz hasi du denboraldi berria. 1996. eta 2007. urteen artean jaiotako gazteei bideratuta dago, eta, azkenengo lau urteetan lez, esperientzia handia duen Iñigo Lariz korrikalaria izango da arduraduna.

Izen-ematea irekita dago, eta triatloieskola.blogspot.com.es gunean egin daiteke. 2001. eta 2007. urteen artekoentzat 300 euro da denboraldi osorako kuota, eta 1996-2000 artekoentzat 350

euro. Eskolan parte hartu ahal izateko eskakizun bat azpimarratu dute: gaztetxoek igeri egiten jakitea.

Urtero legez, "kirola eta dibertimendua" uztartzen saiatuko direla esan du Iñigo Larizek: "Gaztetxoek jolasen bitartez hurreratzeko ditugu triatloira; ondoren, haur kategorian hasien dira entrenamendu serioagoak. Triatloia ez da beste kirol batzuk baino gogorragoa, hori segurua. Normalean, etortzen direnei eta probatzen dutenei gustatu egiten zaie"



Apurka-apurka gazteak triatloian trebatzea du helburu eskolak. MugarraTT.

Tabirakok bere taldeak aurkeztuko ditu gaur

Landako kiroldegian izango da aurkezpena, 17:30etik aurrera; aurtengo 660 jokalarietatik %75 neskak dira

> SASKIBALOA

Tabirakok denboraldi honetan izango dituen 51 taldeen aurkezpen ofiziala egingo du gaur, 17:30ean, Landako kiroldegian. Urtero legez, jai giroan egingo dute aurkezpena; taldeak banan-banan irtengo dira zaleen txaloen artean, eta aurtengo argazki ofiziala aterako dute.

Tabirakoko 51 taldeetatik hamabost federatuak dira, eta gainerakoak eskola kirolekoak. Guztira, 660 jokalarik jantziko

dute Tabirako Baqueren elastikoa aurtengo, eta horietako 495 neskak dira; kopuru osoaren %75, hain zuzen. Jokalari horien ardurak, 119 entrenatzaileen artean banatuko dute.

Baqué torneoa

Bestalde, gizonen Baqué Torneoa jokatu da asteburuan. Bihar, 16:45ean, La Salle eta Zarautz lehiatuko dira; 18:45ean, Tabirako eta Getxo. Domekan, 12:00etan izango da finala.



Emakumeen talde nagusia bigarren sailkatu da Baqué torneon.



LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



Hegaluzea
eta
Hegalaburra
Bonito del Norte
y Atún Rojo

Hegaluzea eta hegalaburra

Eusko Label ziurtagiria duten hegaluzea eta hegalaburra (zimarroia) kalitate goreneko arrainak dira, banan-banan harrapatutakoak sarerik gabe, arrantzarako tresna tradizionalekin: kanabera (beita bizia) eta kazako arrantza. Metodo horiekin, arrainaren kalitatea hobea izateaz gain, arrantza tokien iraunkortasuna eta itsas baliabideen iraupena bermatzen da.

EAEko arrantza portuetan, deskargatzeko une horretan bertan, pertsonal adituak aukeratzen ditu aleak. Neurri eta freskotasun irizpideak kon-tuan izanik, onenak aukeratu eta horiei bakarrik jartzen zaie ziurtagiria.

Horrela identifikatzen da

Isatsari atxikita daraman zigilu bortxaezinagatik ezagutuko duzu arraina, Eusko Label ziurtagiria du, eta baita beste datu batzuk ere, adibidez kontrol-zenbakia.

Zenbaki horrekin eta www.euskolabel.net web unearen bidez honako datuak ere ezagutu ahal izango dituzu: itsasontziaren izena, espeziea, deskarga-portua, kofradia, deskarga-data, eremua eta harrapatze era.



Zorionak Ekain Olmos!

‘Anbotoren lagun’ direnen artean Hazi fundazioak emandako Eusko Label ziurtagiria duten produktuez osatutako otzara zozkatu dugu. Ekain Olmos zaldibartarra izan da irabazlea.

Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkarten ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoari aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, anboto@anboto.org helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOri babes emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@ anboto@ anboto.org	☎ 946 816 558	✉ Izen-deiturak <input type="text"/> Helbidea <input type="text"/> Herria <input type="text"/> Posta kodea <input type="text"/> Telefonoa <input type="text"/> Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
------------------------------------	---------------------------------	---



Anbotoren lagun
artean Eusko Label
produktuen otzarak
zozkatuko ditugu

anboto
lagunak

LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

anboto

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzen.

BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politik.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekotak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTZA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Trastelekua.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta ganbara.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta ganbara.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Ganbara.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
- JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO



- Askatasun etorbidea. Eraikuntza berriak. 1, 2 eta 3 logelakoak.

DURANGO



- Errotarixuena: AUKERA! Estreinatzen. Logela 2, egongela, sukaldea esekitokiarekin, balkoia eta komun 2. Garajearekin. **207.000€.**

DURANGO



- Arkotza: Guztiz berriztua. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **225.000€.**

DURANGO



- Plateruen plaza. 90 m2. 3 logela, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua. **290.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

DURANGO



- Tabira. Duplexa. 4 logela, egongela handia, sukalde jantzia jangelarekin eta komun 2. Balkoi 2. 35 m2-ko garaje itxia. Ikuspegi ederra. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **330.000€.**

DURANGO



- Atikoa. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Garaje bikoitza, itxia, eta trastelekua. 80 m2-ko terraza. Kontsultatu.

www.inmoduranguesado.com

AUKERA

- B. GABIOLA: Beheko solairua. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea. Bizitzen sartzeko moduan. 86.000€.
- IURRETA. Uralde: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz berriztua. Igogailua. Trastelekua. 130.000€.
- ARAMOTZ: 3 logela. Eguzkitsua. Berogailua. Bizitzen sartzeko moduan. 115.000€.
- ABADIÑO. Arlozabal: 2 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 142.000€.
- ZALDIBAR: Azkeneko 3 etxebizitzak. Estreinatzen. BEZa barne. ORAIN PREZIO BEREZIAK.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- KOMENTUKALEA: 4 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. 186.000€.
- ASK. ETORBIDEA: Etxebizitza altua. 3 logela. Etxe osoa kanpora begira dago. Trastelekua. Garajea. 252.000€.
- ARKOTXA. Madalena: 4 logela, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. 225.000€.
- TABIRA: AUKERA. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta despentsa. Eguzkitsua.
- SASIKOA: Azkeneko etxebizitza. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- OIÑITURRI. Ezkurdi: 140 m2. 4 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.
- DURANGO: Berriztua. 2 logela, egongela eta sukaldea office-arekin. 138.000€. Alokairuan erosteko aukerarekin. 550 euro hileko.
- TABIRA: Duplexa. Erdi berria. Etxe osoa kanpora begira dago. 2 kotxerentzako 40 m2-ko garaje itxia.
- ANDRA MARIA: Atikoa. 107 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela-jangela.
- F.J. ZUMARRAGA: 4 logela eta egongela. Terraza. Etxe osoa kanpora begira dago. 186.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde-jangela. Ganbara eta garajea. 250.000€.
- GARA: Familiabakarra. 2.900 m2-ko lursailarekin. 4 logela eta 3 komun. Ikuspegi ederra. Solairu bakarra. 450.800€.
- BERRIZ: Txaleta. 362 m2. Estreinatzen. 1.270 m2-ko lursaila.
- MATIENA. Trañabarren: 3 logela eta 2 komun. Terraza. Eguzkitsua. Ganbara. 190.000€.
- TXIBITENA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde esekitokiarekin. 2 terraza. Erdi jantzia. Ganbara eta garajea.
- ANDRA MARIA: 105 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. 155.000€.
- DURANGO: 3 logela, komunak, sukaldea balkoiarekin eta egongela terrazarekin. 26 m2-ko garajea. Eguzkitsua. Etxe osoa kanpora begira dago. 183.000€.
- IURRETA: Bidebarrieta. 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 186.500€.
- MATIENA: 60 m2. 3 logela. Ganbara. 108.000€.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000€.
- ABADIÑO: San Trokaz. 2 logela eta komuna. Trastelekua eta garajea.
- BERRIZ: Lehendakari Agirre: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 149.500€.

www.inmoetxetxo.com

anboto.iragarki**laburrak**.com


INMOBILIARIA
ETXELAN
 NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
 946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
 www.inmobiliariaetxelan.com

SALGAI

· ELORRIO

REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000€

TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.

REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600€

REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 93.300€

REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000€

REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500€

REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. 2 bainugela. Garajea

Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62.5 m2 eta 105 m2.

REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000€

REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600€

REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. 185.300€

REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 125.000€

REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000€

Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000€/ 330.000€

BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000€

70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 40 m2-ko trastelekua. 84.000€

· ATXONDO

REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000€

REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukalde, terraza-lorategi. 2 garaje. Kontsultatu.

Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukalde. Lursaila. 385.000€

Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde. Lursaila. Kontsultatu.

Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukalde. 180.000€

· ABADIÑO

Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukalde, egongela. Berri-berri dago. 570.000€

Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukalde. 246.000€

Ref.325. Pisua, 90m2, 3 gela, bainugela 2, sukalde eta egongela. 105.000€

· BERRIZ

Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukalde, balkoia. 162.000€

60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukalde. 126.000€

Ref. 401. Pisu ia berria, 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 204.000€

Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.

REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000€

Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukalde. Aukera paregabea

· ZALDIBAR

Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 158.000€

Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 125.000€

Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 150.000€

REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela eta garajea. 159.000€

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Abadiño, pisu ederra, 124 m2, 2 logela, sukalde, egongela, 2 bainugela, trasteroa, ganbara eta garajea. Ikuskarria, bizitzera sartzeko prest. Tel.: 636-41 37 22.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritzaturismorako, toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 m2 lur. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

LOKALAK

Autokarabana edo karabana gordetzeko leku aproposa Mendiolan.

Leku estalia eta inon baino merkeago!
Asegurua, ura eta argindarra barne.
Hilean 49 euro
Interesatuta bazaude, deitu
600 464 411
946 812 003

Karabana eta autokarabanentzako partzelak alokatzen dira Abadiñon.

Pabiloi barruan:
60 euro
Kanpoan aterpearekin:
50 euro
Kanpoan:
40
Mugikorra:
628 514 721

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Matienan altuera dezente duen lonja bat alokatzen dut 100 metro koadroekin eta bigarren solairua ateratzeko aukeragaz. Tel.: 94 682 45 90.

Berriz. Berrizen pisua alokagai. Logela, estudioa, bainugela, sukalde, egongela-jantokia, garajea eta trastelekua barne, 555 euro hilero. Tel.: 656-75 21 63.

Durango. Errotaritxuenan pisua alokatzen da. Bikote eskalduna. Bi logela, bainugela 2, garajea eta trastelekua. 580 euro. Guztiz hornituta. Tel.: 635-70 06 90.

Elorrio. Etxe bat alokatzen da Elorrioren, 2.500 metro karratuko lursailarekin. Tel.: 616-93 63 51 (Manu).

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Arratsaldetan, asteleheneetik ostiralera, haurrak zaintzeko prest. Eskolako lanekin laguntzeko prest nengoke. Esperientzia dut. HH eta hezkuntza berezian titulatu naiz. Interesa duen norbait balego, jarri harremanetan. Tel.: 688-64 06 04.

Durungaldea. Lan bila nabil, arratsaldez, gauz edo barneko langile gisa, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Tel.: 632-46 01 09.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut asteburuetan edo gauz. Garbiketan lan egiteko ere prest, lanaldi erdian edo osoan. Tel.: 690-68 73 95.

IRAKASKUNTZA

Durungaldea. Kimikan lizentziatutako neska durangar

eta eskalduna eskola partikularrak emateko prest. Haur eta gazteekin esperientziaduna. Tel.: 635-20 12 51.

Durungaldea. Mutil eskoziarra irakaskuntza tituluarekin, ingeles eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 689-68 50 19.

GAINERAKOAK

Durango. Durangon ile apaintzailea behar da. Esperientzia izatea baloratuko da. Lanaldi osoa. Tel.: 94 621 82 18 / 665-70 58 49.

LAN ESKAINTZAK

IRAKASKUNTZA

Elorrio. 7 eta 11 urteko seme-alabei astean pare bat egunetan ingelesa irakasteko pertsona bat behar dugu. Ahal bada, ingeles jatorrikoa. Gehien bat mintzapraktika nahi dugu. Tel.: 658-71 84 62.

Denetarik

SALDU / EROSI

Ardiak eta bildotsak salgai. Ardiak eta bildotsak salgai. Tel.: 692-49 80 80.

Batxilergoko 1. eta 2. mailako liburuak egoera onean saltzen ditut. Bigarren eskukoak, egoera onean eta merkeak. Interesa baduzu, deitu. Tel.: 637-29 24 65 / 94 620 37 38.

Diseinurako mahaia salgai.

Diseinurako mahaia salgai, arkitekura eta delineaio ikasleentzat aproposa. Prezio oso onean. Tel.: 656-73 77 79.

GAINERAKOAK

Durangotik Gasteizera autoa partekatzen prest. Durangotik goizeko 06:40 aldera Gasteizera joaten den norbaitekin kontaktuan jarri nahi dut, kotxea partekatzen. Tel.: 646-14 07 62.

Izen-ematea zabalik Elorrioko Haurreskolan

Tel.: **946 584 907**
Goietia, 20

EMAN / HARTU

Txakurkumeak opari. Ama border collie arrazakoa dute, oso gozoa eta umila, aita arratoi txakurra. Ekainak 8an jaiotakoak dira, eta batez ere zuriak dira. Eme bat eta arra geratzen dira. Tel.: 688-87 52 73.

Ibilgailuak

FURGONETAK

SALDU

Volkswagen t4 California salgai. Durungaldea. Volkswagen t4 California furgoneta salgai. 2.4 diesela, 1991. urtekoa, 330.000 km, prezio onean. Tel.: 690-36 68 75.

GAINERAKOAK

SALDU

Pascuali traktorea saldu nahi dut. Pascuali markako traktorea saldu nahi dut. 30 zaldi potentzia. Erremolkeagaz eta trakziaduna. Dokumentazio guztia du. Tel.: 94 682 45 90.

Aisia - kirola

KIROLAK

EROSI

GAC Crown edo Phase baten bila nabil. Gac crown edo phase bat erosi nahi dut. Egoera onean badago, hobe, baina gaizki daudenak ere kontuan hartuko nituzke. Crown edo phase modeloak bakarrik interesatzen zaizkit, eta egoeraren arabera ordainduko nuke. Tel.: 685-78 01 42.

DURANGALDEA

IRUDITAN

ARGAZKI LEHIAKETA

- Durangaldeko hamairu herritako argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen
- Informazio gehiago www.anboto.org webgunean





AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 21ean, 18:00etan, Abadiñoako Errota kultur etxean

Amama Anaren bidaiak

Belaunaldien arteko harremanari buruzkoa da Durangaldeko La Papa taldearen antzezlan, amonaren zahartzaroko zailtasunek familiarte hartu-emanari zelan eragiten dioten erakusten duena. Ricardo Combiren zuzendaritzagaz, Nazaret Fraufe, Izaskun Asua eta Markos Gimeno dira obrako antzezleak.



Jaiak

:: DURANGO
(Goienkalea)

IRAILAREN 19an

20:00etan, txupinazoa, Sugarri fanfarria, buruhandiak, 23:30ean, Frandiyei.

IRAILAREN 20an

12:30ean, Bertzi Marching Band, buruhandiak, 13:30ean, sardina-jana, 17:00etan, mus txapelketa, Maite tabernan. 18:00etan, igel txapelketa, Rugby tabernan. 20:00etan, Guretzat txaranga, 23:30ean, Frandiyei.

IRAILAREN 21ean

12:00etan, Gehi Zazpi biolontxelo taldea, 13:00etan, Tabira Musika Banda, 17:00etan, umeentzako jolasak, 18:30ean, txokolatada, 19:00etan, Frandiyei.

IRAILAREN 24an

12:00etan, minipintxo banaketa, tabernetan. 14:00etan, jubilatuen bazkaria, Txantonesan. 19:00etan, meza, Santa Anan. 19:45ean, Frandiyei.

:: ZORNOTZA
(Ogenbarrena)

IRAILAREN 25ean

19:00etan, txupinazoa eta trikitalarien kalejira, 19:30ean, pintxo-potea.

IRAILAREN 26an

17:30ean, briska txapelketa, 18:00etan, ping-pong txapelketa, 19:00etan, igel txapelketa, 21:00etan, Mariatxi Real Azteka.

IRAILAREN 27an

12:00etan, umeentzako herri kirolak eta V. Babarrun Lehiaketa, 14:30ean, herri bazkaria, 17:30ean, mus txapelketa, 20:00etan, Eromen, 22:00etan, Diversion's.

IRAILAREN 28an

11:00etan, txistularien diana, 11:30etik 14:30era, puzgarriak, 12:00etan, txorizo dastatzea, tabernetan. 15:30ean, jaien amaierako txupinazoa.



Erakusketa

:: BERRIZ

IRAILAREN 30era arte

'Errepublikara garaiko Berrizko maisu-maistrak', Kultur Etxean.

:: DURANGO

IRAILAREN 28ra arte

Joxan Izaren 'Bildumak & amaitu gabeak', Arte eta Historia Musean.



Bertsoak

:: ZALDIBAR

IRAILAREN 26an

21:00etan, bertso afaria Andoni Egañagaz eta Sebastian Lizasogaz, Goierri. (Txartelak: irailaren 23ra arte, Paularen zokoan, Karobin eta Negugogorren).



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 18an

19:00etan, Kantulagunei... lehen kantu bat: Kantulagunen ikasturte berrirako aurkezpena, Plateruenean.

:: ELORRIO

IRAILAREN 20an

22:00etan, Rude Pride + Shock Waves + Aggressive Combat, gaztetxean.



Kontalaria

:: DURANGO

IRAILAREN 19an

19:00etan, Ixabel Millet, Udal Bibliotekan.



Lehiaketa

:: DURANGALDEA

AZAROAREN 22ra arte

Juan Ramon de Iturriza mikroistorio lehiaketara. (www.gerediaga.com).



Dantza

:: ELORRIO

IRAILAREN 19an

18:00-20:00, biodantza saio irekia, Txintxirrin.



Antzerkia

:: ABADIÑO

IRAILAREN 21ean

18:00etan, Amama Anaren bidaiak, Errotan.

:: BERRIZ

IRAILAREN 19an

18:30ean, 'Libertia', Olatueta plazan.



:: DURANGO | ZUGAZA

El corredor del laberinto

Zuzendaria: Wes Ball
• barikua 19: 19:30
• zapatua 20: 19:30
• domeka 21: 21:30
• astelehena 22: 21:00

El niño

Zuzendaria: Wes Ball
• barikua 19: 22:00
• zapatua 20: 22:30
• domeka 21: 19:00
• astelehena 22: 18:30

Las nuevas aventuras de Caperucita Roja

• zapatua 20: 17:00
• domeka 21: 17:00

Violette

Zuzendaria: Martin Provost
• eguena 25: 20:30

2. ARETOA

El niño

• barikua 19: 19:30
• zapatua 20: 19:30
• domeka 21: 21:30

El corredor del laberinto

• barikua 19: 22:00
• zapatua 20: 22:30
• domeka 21: 19:00
• astelehena 22: 18:30
• martitzena 23: 20:00

Guardianes de la galaxia

Zuzendaria: James Gunn
• zapatua 20: 17:00
• domeka 21: 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

El niño

Zuzendaria: Daniel Monzón
• zapatua 20: 22:30
• domeka 21: 20:00
• barikua 22: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Chef

Zuzendaria: Jon Favreau
• barikua 19: 20:15
• zapatua 20: 19:30/22:30
• domeka 21: 20:00
• astelehena 22: 20:15

Tarzan

Zuzendaria: Reinhard Klooss
• zapatua 20: 17:00
• domeka 21: 17:00

IRAILEKO AGENDA

19

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA
SAN MIGEL JAIK
18:00 Pirritx eta Porrotx 'Bizipoza' Olaburu pilotalekuan
Sarrerak: Ibarretxe kultur etxean

20

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA
SAN MIGEL JAIK
Argazki Rallya online lurretako jaiak
ZALDAI MENDI TALDEA
lurretako V. Mendi Martxa
Informazio gehiago:
Tel.: 626 740 969 · www.zaldaimenditaldea.org
OLABURU PILOTA K.E.
20:00 Profesionalen pilota partiduak

21

BIDEZABAL ATLETISMO TALDEA
10:00 XXXIV. lurretako Hiri Krosa

25

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA
SAN MIGEL JAIK
19:00 Banarte Antzerki taldea, 'Gernika 1913'. Gaztelaniaz.

26

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA
SAN MIGEL JAIK
11:00 Grafiti erakusketa eta tailerra
17:30 Umeentzako herri kirolak
21:30 DJa Askondon

27

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA
SAN MIGEL JAIK
12:00 Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak.
14:00 Jubilatuen bazkaria; ondoren, erromeria Uribesalgorekin.
16:00 Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak.
20:30 Torilla txapelketa.
20:30 Umeentzako erromeria.
22:00 Helduentzako erromeria.
22:30 Rock kontzertua.

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> Irailaren 14an **Jonek** 2 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta familia osoaren partez etxeko bizipozari. Muxu bat!



> Gure piraguista abadiñarrak, **Elaiak** eta **Onetak**, 8 urte bete dituzte irailaren 23an. Musu potolo bana!



> **Egoitz Basterretxeak** irailaren 18an 10 urte egin ditu. Zorionak Elorrioko aitita eta amamaren partez.



> **Ainhize Basterretxeak** abuztuaren 24an 6 urte egin zituen. Zorionak! Elorrioko aitita eta amamaren partez.



> Gure etxeko txikitxue! Ongi etorri familiara **Xiker!** Ze politte zaren! Muxu potolo bat guraso berrirei!



> Zorionak **Sara!** 5 urte neska handi! Muxu erraldoi bat Narroa, Adaia eta Juneren partez!



> Martitzenien **Lur Olabarri** ixorretarrak 5 urte beteko ditte. Zorionak senide guztien partez!



> Eguenean, irailak 18, **Aitanak** 4 urte egin ditu. Zorionak eta mosu haundi bat lurretako lagun partez.



> Zorionak **Xixili** eta **Katalin!** Xixilik irailaren 9an eta Katalinek 17an, 6 eta 3 urte eingo dabez. Ondo pasau urtegunak!



> Aupa **Maia!** Irailaren 18an 6 urte egingo dozuz! Zorionak danon partez, ta muxu potolo bat!



> Hor daude **Beñat** eta **Lier** Champiosen itzelak egiten. "Aurten txapela ipini", diotso Lierrek aitari. Zorionak Beñat!



> Zorionak **Maiertxu!** 3 urte! Ondo pasau eguna ta txokolate asko jan!



> Zorionak bikote! Baina ze guapoek barrezka zauzienen. Ea irailaren 21 osoa irribarre horrekin igaroten dozuen.



> **Anita**, zorionak! Kandelak eta pastelak ekarri, urtegun bat pastel barik eguzki bako egun bat modukoa da eta!



> Zorionak bikote! Urtero lez zuen urtegunek juerga handi batez ospatuko doguzelakoan, urteguneko tarta goxo-goxuek gure kontu eta geroko traguek zuen kontu. Mosu kanariote bat!



> **Enekok**, gure etxeko txikiak, irailaren 23an 2 urtetxo beteko dauz, eta bere aitak, Aitorrek, baten bat gehiau... Zorionak bioi, eta Javi, Goyi, Endika, Amaia eta Aurori be zorionak eta mosu bana!



Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak **Ekaitz Antepara!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitua zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 19 - 09:00-09:00
• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango) 09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
ZAPATUA, 20 - 09:00-09:00
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango) 09:00-13:30
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-14:00
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta) 09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
DOMEKA, 21 - 09:00-09:00
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)

09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00
• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)
ASTELEHENA, 22 - 09:00-09:00
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
MARTITZENA, 23 - 09:00-09:00
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango) 09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
• **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
EGUAZTENA, 24 - 09:00-09:00
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUENA, 25 - 09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango) 09:00-22:00
• **Lopez de Aretxaga** (Torresola 4 - Abadiño)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
lurreta
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
lurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
lurreta **94 620 08 88**

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztinetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....**0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa**1 euro**
Azelga**2 euro/kg**
Espinaka txorta**1,20 txorta**
Berakatz freskoa**1,50 txorta**
Ilarrak**6 euro/kg**
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
Gari integraleko ogia**3,30 euro**

15° 27° ZAPATUA



16° 23° DOMEKA



15° 20° ASTELEHENA



10° 20° MARTITZENA



“Batzuk ikastera etortzen dira, eta beste batzuk erosotasun eta segurtasun bila”

ETB1eko ‘Itxuroso’ programan irudi aldaketak proposatzen dizkie parte-hartzaileei Estefania Uriartek



> AKUILUA Jone Guenetxea
Moda, joerak, bisajismoa, estilismoa... Mundu horretan dihardu Estefania Uriartek Jaione Amantegi amagaz batera (jaioneamantegi.com). Bere azken proiektua Jon Kortajarenagaz izan da.

Zer-nolako esperientzia izan da ETB1eko?

Esperientzia oso polita izan da. Eguneroko lanagaz alderatuta ezberdina izan da. Bisajismoa egiterakoan pertsona bat izaten duzu aurrean, eta lan tekniko bat dago horren atzean. Programan, pertsona ikusi beharrean, argazkia ikusten nuen.

Zer da bisajismoa?

Bisajismoan, ikerketa baten bitartez, neurri batzuk hartzen dira morfologikoki, eta, adibidez, ile, kolore, makillaje eta bekain egokiak zeintzuk izan daitezkeen jakitea lortu daiteke. Arrakala laburrak edo luzeak hobeto zergatik gelditzen diren ere azaltzen du. Beraz, aurpegiaren ikerketa osoa egitea da. Arkitekto batek plano batean egiten duen antzeko lana da. Ez da moden edo joeren arabera egiten.

Estudioan zer beste zerbitzu eskaintzen duzue?

Guk egiten duguna irudia ikeretzea da. Estilismoa, ile apainketa zerbitzua, fotografia, moda kontuak eta kolorea lantzen

ditugu. Ezkontzak ere egiten ditugu.

Jendea zeren bila joaten da zuengana?

Batzuk ikastera etortzen dira, baina normalean erosotasuna eta segurtasuna gura dute. Aholkularitza orokorra gura izaten dute askok. Armairuan zer duten ikusi, eta bakoitzaren bizimoduaren arabera janzkera osatzea. Estilismoa lantzerakoan, sarritan erosketak egitera joaten gara beraiekin. Etortzen diren beste batzuk, ordea, oso lanpetuta dabilta, eta arropak estudioara ekartzen dizkiegu.

Garestia da?

Gau batean afaltzera joatea eta horretaz disfrutatzea garestia da? Nik horregaz alderatzen dut. Bisajismo eta estilismo zerbitzuak 110 eurokoak dira, esate baterako. Jende asko denboraldika etortzen da.

Zure moduko bat kuadrillan izatea zoragarria izango da aholkua eskatzeko.

Asteburuetan bezero eta lagunen WhatsApp mordera jasotzen dut argazki eta guzti. Ezkontza bat edo zer edo zer izaten badute, dituzten aukerak zeintzuk diren azaltzeko bidaltzen dizkidate. Edo sarritan gertatzen zait, adibidez, zerbait hartzera irten, eta lagunek galdeztzea ea zein koloregaz margotuko dituzten begiak. Nire lana asko gustatzen zait, eta eskerrak!

Itxura aldaketetan beldur handienetakoa ilea mozteak sortzen du?

Jendea estudioara datorrenean kolore aldetik gehiago ausartzen da, baina egia da ile kontuetan sartzen zarenean gehiago kostatzen dela. Estudioan sartzen dena normalean aldaketa bat egiteko prest egoten da, baina aldaketa ez da zertan erradikala izan. Aldaketa txikiak izan daitezke.

Emakumeak edo gizonak joaten dira gehiago zugana?

Emakumeak askoz ere gehiago etortzen dira. Baina azken urtean gizonak etortzen hasi dira. Hasieran enpresariak ziren, baina gero eta gehiago etortzen dira 22 urte inguruko mutilak, erosketak egitera.

Jon Kortajarenagaz ere aritu zarete proiektu batean.

Jon Kortajarena film labur bat grabatzen dabil Los Angelesen. Proiektu horretako argazki batzuk Xabik egin ditu, gure argazkilariak, eta ile apainketa eta makillajea Bilbon egin genituen. *Itxuroso* amaitu ondoren ekin genion lan horri.

Durangaldeko bezero ugari dituzue.

Lehen estudio bi genituen, Durango eta Bilbon. Durangarrak garenez, eta hemen hasi ginenez, pena ematen zigun Durangokoa zarratzeak, baina bi lekuetan egotea oso zaila zen. Jendeak ulertu du hori, eta Durangoko estudioko bezero asko Bilbora etortzen dira. Durango, Zornotza, Elorrio... Donostiako eta Gasteizko jende asko ere etortzen da. Ezkontzak ere lantzen ditugunez, leku askotako bezeroak ditugu.

LAUHORTZA

JON ARTZA

Soziologoa



Ikasturte pragmatikoa

Ikasturtea bizi hasi da, batik bat Eskozian eta Katalunian. Eskoziar independentistak, irabazi ala galdu, subjektu politiko giza aitortuak dira, hemen eta Katalunian ez bezala. Legezko tasunik ez, baina indar erakustaldi bikaina egin dute Bartzelonan, irailaren 11ko Diadan. Euskal Herriko subiranistak esperoan gaude. Badakigu ikasturte honetan emaitza onegiak lortzea zaila dela. Hortaz, etxeko lanak zintzo eginez, maiatz-ekainera iritsi, eta ikasturtea gainditzearekin konformatuko ginateke. Badira baikorrak izateko datuak, kopeta iluntzeko albisterik izan bada ere. Horien artean, Donostia Europako hiriburu kulturala egitasmo-ko zuzendariaren izendapena. Izendatua aski prestatua eta dotorea izanik, ez da euskalduna. Erabaki pragmatikoa omen. EH Bilduk hautagai euskalduna nahi zuen, besteak beste, non aukeratu bazuelako. Baina gainerako alderdiek beste hau inposatu dute, prestakuntzaz eta esperientziaz landa, goi mailako harremanak omen dauzkalako.

Ematen du euskararen normalizazioaren aferak, ikasturteko planifikazioan baino urte hasierako desiretan sartzen direla gehiago: erretzeari utzi, gimnasia joan eta euskara gehiago erabili. Ideia honi bueltak ematen nabilela, Egunkaria itxi eta biharamunean egunkari abertzale bateko zutabegile bati irakurri niona etorri zait gogora. Itxieraren injustizia salatzeke, ordutik aurrera, hilean behin euskaraz idatziko zuela aldarrikatu zuen. Gaitasuna izanik, zergatik ez zuen aurrez ere euskaraz idatzen? Argi dago, pragmatismoagatik.



EGYRANGA S.L.
PINU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284